

Digitalizazioa hizpide

Gaur jardunaldia dago Lakuntzan eta SGAK elkarlan hitzarmena sinatu du / 2-3

Tren azkarrarendako proposamenak

Nafarroako Gobernuak ekarpenak egiteko aukera zabaldu du. Sustrai Erakuntza fundazioak Tren Publiko eta Sozialaren alde egin du / 8-9

Irurtzun-Arakilgo V. bertako ganadu azokak egun beteko egitaraua du iganderako / 5

Guaixe.eus-en udako argazki lehiaketako sariak argazkilari bakarrak eskuratu ditu / 22

Altsasuko festak ekuadorrera iritsiko dira gaur, asteburuan jendetza etorriko dela aurreikusita / 12-13

Urbasako saroiko lezean bigarren hilarria jarri zuten eraildakoen senideek larunbatean / 11

Iskiza-Sakana gimnasia erritmikoko taldeak 10. urteak erakustaldi batekin ospatuko ditu / 19

Oberena eta Uharte-Iruñea klubek jokatu dute Altsasuko pilota txapelketako finala / 15

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Itxiala emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK/ BECAS

Sakanako Mank: BEKAK

aek
euskara praktikoa



EUSKARA IKASTAROAK



Miguel Iriberry (Fundación Industrial Navarra) eta Davir Oroz (Sakanako Garapen Agentzia) hitzarmena sinatu zuten. UTZITAKOIA

Enpresen digitalizaziora elkarlanetik abiatuta

Enpresen teknologia eta ezagutza berrikuntza prozesuak sustatuz industria enpleguak mantendu eta hobetu nahi ditu Sakanako Garapen Agentziak. Horretan elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu du Fundación Industrial Navarrarekin

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) presidente David Orozek eta Fundación Industrial Navarrak lan hitzarmena sinatu zuten hilaren 6an. Akordio horren bidez digitalizazioaren arloan lankidetzara jarraiturako esparrua sortu eta bi erakundeak elkarlanean ariko dira. Horren aurreko fruitua Industria 4.0 eta

digitalizazioa lan saioa da, Lakuntzako kultur etxean, gaur goizean egingen dena.

Orozek gogorarazi duenez, Sakanako Plan Estrategikoak ibarreko industria enpresen lehiakortasuna hobetzea du helburu, horretarako haien arteko elkarlana eta berrikuntza sustatuz. Asmo horrekin Sakanako Garapen Agentziak eskualdeko

adimendun espezializazioa garratzeko aukera-esparruak identifikatzeko lanari ekin zion joan den urtean. Aukera-esparru horietan digitalizazioak garrantzi handia du, identifikatutako esparru guztietan zeharka eragiten dielako.

SGAtik azaldu dutenez, "Oso argi daukagu jadanik abian da-goela ekonomia eraldatzeko pro-

zesua, zeinak digitalizazioaren bidez ezagutzaren ekonomiara eramango gaituen. Aldaketen abiadurak eta etenek aukerak eta mehatxuak sortzen dituzte". Hori horrela, industria-lanpostuak mantentzeko eta hobetzeko teknologia- eta ezagutza-berrikuntza ziurtatuko duten gaitasunak eta bitartekoak eskuratzea beharrezko jo du agentziak, "Sakanaren sozio-ekonomiaren garapena ekarriko duelako".

Hitzarmena

Horrekin batera, "ibarraren garapen estratergiarako sektore arteko elkarlana oinarrietako bat da". Hori dela eta, "helburu horiekin bat datozen erakundeen arteko elkarlana eta sinergiak bilatzea" ezinbesteko jo dute.

Hor kokatzen da SGAK Fundación Industrial Navarrarekin sinatutako akordioa. Lankidetzara jarraituak lau esparru hartuko ditu eta helburu horiek lortzera bideratutako jarduketak erraztu, lagundu eta abian jarriko ditu. Alde batetik, prestakuntza sustatuko da, lehiakortasuna eta eraldaketa digitala hobetzeko. Ezagutzen trukaketa da bigarren puntua. Biek enpresetan sortutako arazoaren aldikako kontsultak jasoko dituzte, haiek konpontzeko informazioa partekatuko dute, eta, adituen laguntzaz, konponbideak bilatzen laguntzeko aukera izanen dute.

Lankidetzara hitzarmenaren barruan antolatutako jardueretarako informazioa zabaldu eta parte-hartzaileak erakartzeko lana hartuko dute bi erakundeek. Azkenik, proiektuak sustatuko dituzte. Horretarako, bazkideak opatzeko informazioa eta laguntza emanen dute. Hitzarmenaren xede diren proiektuei lotutako kudeatzeko laguntza ere.

Aipatu fundazioa irabazi asmorik ez duen erakundea da, Nafarroako Industria Ingeniarren Elkargo Ofizialak eta Nafarroako Industria Ingeniarren Elkarteak sortu zutena 2014an. Bere helburua Nafarroaren industria eta ekonomia garapena bulkatzea da, horretarako enpresak lehiakorrago izateko laguntza ematen du. Horretarako, jarduerak antolatzen ditu, haiek eta enpresak elkar lagunduz eta elkarrengandik ikasiz.

Gaurko jardunaldiko egitaraua

Lakuntzako kultur etxean

- **09:00** Harrera.
- **09:10** S3 Espezializazio Adimentsu Estrategia. Izaskun Goñi.
- **09:45** Cluster 4.0 AIN. Nancy Tarjerian.
- **10:15** NODO 4.0- 4.0 teknologia.
 - Hirudi, 3D inpresioa.
 - Contec, BIM eta simulazioa.
 - IAR, Areagotutako errealitatea..
- **11:00** Atsedendaldia.
- **11:30** 4.0 Industria Sakanan
 - Aldakin. Prestakuntza eta kooperazio beharra..
- **12:30** 4.0 Eraldaketa industrian. Arrakasta kasuak
 - Kunak eta Markibar
 - Innovacion.
 - OuiPlay eta Gurpea.

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Arakil-Irurtzungo V. bertako ganadu azoka
- Altsasuko "Munduko Arrozak"
- Altsasuko festak

www.guaixe.eus-en ON LINE



NUPEk Lakuntzan egindako uda ikastaroa, garilean.

4.0 industria eta digitalizazioa mintegi batean aztergai

Zer eragin izanen du iraultza digitalak nire enpresan? Erantzuten saiatuko dira gaur, 09:00etan, Lakuntzan

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) antolatu du saioa, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Digitalizazioa eta 4.0 Industria eraldaketa da Sakana 2020 Plan Estrategikoaren garapenaren barruan SGAK duen gai garrantzitsuenetarikoa. Horretarako, ibarreko industriaren digitalizazioari buruzko azterketa sakona egin eta gero beharrei erantzuna emateko antolatu dute hilaren 15eko mintegia.

SGAtik nabarmendu dutenez, mintegiak balioko duela negozio aukera berriak ezagutzeko, industria 4.0.ren abantailaz jabetzeko eta digitalizazioa gure egunerokoan nola sartzen ari den ezagutzeko. Ibarreko enpresendako indarberritze bat emateko aukera bikaina dela uste dute agentzian.

Edukiez

Ekonomikoa Garapen Departamentuak S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eta horrek digitalizazioan eta enpresengan izanen duen eragina ezagutzeko aukera izanen dute. Horren berri emanen du Izaskun Goñik, gobernuko Ekonomia Zuzendaria Nagusiak. Gainera, AINeko Nancy Tarjerianek martxan jarri duten 4.0 Clusterra aurkeztuko du eta, bide batez, enpresak errealitate digitalera nola moldatu diren azalduko du.

Bestetik, digitalizazio kasu arrakastatsuak ezagutzeko aukera izanen da NODO 4.0ren bitartez: Hirudik 3D inpresio

eta eskaner teknologiak enpresei zer eskaintzen dien jakinaraziko du; Contec-eko ordezkaria BIM eraikuntza teknika berriak eta industrian erabili daitezkeen simulazio tresnen inguruan ariko da eta, azkenik, IAREko (Industrial Augmented Reality) eledunak areagotutako errealitatearen erabilerak azalduko ditu.

Ibarreko 4.0 Industriaren adibidea ere izanen da. Eta mintegia despeditzeko eraldaketa digitalaren hainbat arrakasta kasu aurkeztuko dira: Kunak-ekoek azalduko dute Markibar Innovacion-ekin batera nola eratu duten mantenu lanetarako tele-kontrol sistema bat; Ouplay-k jokoak nola enpresaren egunerokora gehitzen diren azalduko du eta Gurpearendako egindako aplikazioa aurkeztuko du, proiektu aukera berriak identifikatzeko joko batekin.

Jardunaldian izena emateko

Beharrezkoa da asistentzia konfirmatzea. Bestalde, bere enpresaren digitalizazio mailari buruzko aurre-diagnosia egin nahi dutenek, mintegian izena eman dezakete: mgaita@sakanagaratzen.com edo 948 117 344 telefonoan.

"Iraultza digitalerako prest egon behar dugu"

AINTZANE IRIBERRI BERROSTEGIETA SGA KOORDINATZAILEA

Sakanako Garapen Agentziak enplegua eta aberastasuna sortzeko digitalizazioa zeharkako esparru gisa hartu du. Horren inguruan gehiago jakin nahi izan dugu

SAKANA

Zer da 4.0 industria?

4.0 iraultza digitalak industria produkzioa eta salerosketa aldatuko ditu. Sakanako Garapen Agentzian, hala ere, nahiago dugu digitalizazioaz aritu. Digitalizazioak ez diolako soilik industriari eraginen, bizitzako arlo guztiei baizik. Aurreko urteetan ibarreko aukera esparruak zein diren hausnartu genuen. Hiru dira: energia, zahartze aktiboa eta birziklapena. Baina horien guztien zeharkakoa da laugarrena, digitalizazioa. Hezkuntza edo merkataritzan eragiten du edo eragin du digitalizazioak. Guri nola eragiten digun ikusten ari gara eta iraultza digitalerako prest egon behar dugu.

Eraldaketa hori ezinbestekoa da? Digitalizazioaz ari garenean ez gara soilik tresnez ari, pertsonen prestakuntzaz ere ari gara. Teknologia iristen ari da, baina ez gaude prest. Teknologia horrekin proiektuak sortzeko trebakuntza eta gaitasuna lortu behar da. Nola? Hori da kezka. Analfabeto digitalak garela esaten ari dira. Pertsonak hezi behar dira. Errealitate areagotua, droinak... Halakoak nola aplikatu daitezke? Teknologia horiek ezagutu beharra dugu, erabileratzen emateko.

Langile trebatuak eskatzen ditu.

Enpresa askok eskatzen dituzte langile trebatuak. Emanen dugun trebakuntza enpresako maila guztietarako izan behar du, hasi ikuspegia markatzen duen zuzendaritzatik, erdi-mailako arduradunekin segi eta ekoizpen katean dauden langileenganaino. **Gurean enpresa kokor batzuk ditugu, baina gehien gehienak txikiak edo ertainak dira. Nola egokitu digitalizaziora?**

Esperientziak erakusten digu askoz errazagoa dela enpresa txiki bat digitalizatzea handi bat baino. Azken horietan erre-



Aintzane Iriberrri Berrostegeta. ARTXIBOA

"EZ GARA SOILIK TRESNEZ ARI, PERTSONEN PRESTAKUNTZAZ ERE ARI GARA"

sistentzia gehiago daude. Jakina, inbertsioa behar da eta enpresa txikietan hori da zailena. Baina behin inbertsioaren aurreneko pauso hori ematen badu errazagoa da digitalizazioa enpresa txiki batean.

Zein teknologia maila dugu ibarreko enpresetan?

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak HADA tresna jarri du (Autodiagnostiko Aurreraturako Tresna Aurreratu). Haren bidez enpresek euren digitalizazio maila zein den ezagutu dezakete. Digitalizazio maila zein den jakiteko azterketa sakonago bat egin beharko genuke, baina oraindik pauso handia eman behar dela uste dugu. Gauzak egiteko daude, baina urratsak ematen ari gara. Baditugu teknologia sortzen duten enpresak, Jatorman, Aldakin edo TMI esaterako. Digi-

talizazioan gauzak egiten ari dira, besteak beste, Laneko, Sapa, Industrial Barranquesa, Magotiaux, Aceros Moldeados Lacunza...

Inbertsioa eskatuko du digitalizazioak?

Edozein gauzak bezala. Industria iraultzan inbertsioak egin zutenek merkatuan abantailak lortu zituzten. Hau aldaketa azkarra goa eta sakonagoa izanen da. Aldaketari aurre hartzea oinarritzeko da enpresendako. Apustua nora egin behar den argi dago. Prestatuta egon behar dugu. **Elkarlana da gakoa, beraz?**

Argi dago enpresa txikien birtartekoak ez direla asko. Baina enpresa txiki askoren artean indarra egin daiteke. Informazioa partekatzea sustatu behar dugu, izan ere, Sakanako Garapen Agentziaren helburua elkarlanean erantzutea baita.

Kontaktua

Sakanako Garapen Agentzia
Arbizuko Utzubar
industrialdeko Utzugane
zentruan dago: 948 117 344



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Untsa goberna hadi

Herri batek bere nortasuna galtzen badu ez da herria, jende multzoa da. Herri izatetik ekonomiaren atal izatera igarotzen da. Tresna soil, automata andana. Denak berdin, inor ezberdin. Ekonomiak dakarkion hura onartzerantz derrigortuta, eskaintza eta eskariaren morroi. Aberastasun iturriei men egitera behartua, nortasuna saltzera arte, kapitalaren esanetara.

Adibide ugari ditugu mediterraniar urek bustitako herrietan. Iparreko europarren zerbitzu bihurturik, haien garbitzaile, zerbitzari eta zaindari izatera beharturik. Herriak zituen ondasunak saldurik, arima galdurik. Lurralde ederretan kokatuta egotearen ordaina, nor bere lurtean maizter, Benitok bardoaren baladan zioen bezala. Atzerriko hizkuntzek kaleak estalirik, bertakoa kontsumoko folklore oroigarri bilakaturik.

Gurea ere lur ederrean finkatutako herria dugu. Mendeetako inbasio eta akulturazio prozesuetatik ikasten joan den herria. Nagusi izan ditugunetik ikasi dugu, nortasuna galdu gabe. Gure berezitasunak orain eder deritza atzeritarren begietan. Edertasun hori erakusgarri dugu globalizazioaren ikuslehoan. Salgai jarrita ditugu eta ez dira erosleak falta. Donostiako parke tematiko gastronomikoari esanen nioke hemendik: untsa goberna hadi, Bordaxuritarrak zioen moduan, besteen zerbitzari izaten buka ez dezan hiri eder horrek. Etorkezinean gure burua ez dezagun arrotz sentitu geure lurtean.

OBJEKTIBOTIK



Arraun-zaletasuna Sakanan

Barnekaldekoak garela aitortu arren, azkenengo boladan

arraun munduko ikurrak eta zaletasuna gorantz doaz.

HARA ZER DIEN

Berri onak Madriletik

HIRU MUGAK BATERA

Epaitegi Gorenak bertan behera utzi du Madrilgo Komunitateak Portland Valderrivasi bere Morata de Tajuña zementu fabrikaren hondakinak errausteko baimena ematen dion ebazpena. Ebazpenak dio, herritarrenganako eragina duten horrelako erabakiak hartzeak etengabeko elkarrizketa publikoa eskatzen duela derrigorrez.

Madrilgo Komunitatearen baimenak 290.000 tona hondakin erraustea ahalbideratzen zion Portlanden zementu-fabrikari. Datu honek agerian uzten du, beste behin, zein diren Olaztiko zementu-fabrikaren jabe multinazionalaren benetazko asmoak.

Nahiz eta beti, eta engainatu nahian, esan izan duen bere lantegiko labeek ez dutela errauskailu batek duen hondakinak errausteko ahalmenik, errealitateak dio ahalmen hori aise gaintzen dutela.

Esanguratsua da honen harira zementu-fabriketan

egiten den errausketan adituak direnek adierazten dutena. Esate baterako, pizti kutsatzaile hauen arriskua azaltzeko, auto arrunt baten eta traktore baten arteko konparazioa egiten dute, hau da, errauste gaitasunari eta gas isurketari dagokionez, errauskailuak auto arruntak lirake eta zementu-fabrikak berriz traktoreak.

Ebazpenean azpimarratzekoa den beste puntu bat, enpresa handi hauek administrazio autonomikoen aurrean agertzen duten jokabide handiustea eta legeria ez betetzearen aurreko inpunitatea dira. Lanpostuen galeren mehatxuak erraz bultzatzen ditu agintariak beti enpresa hauen interesen aldeko erabakiak hartzera, eta sarritan, gainera, herritarrei erabakietan parte-hartze zuzena izateko eskubidea ukatuz, nahiz eta beraiengan oso larriak izan daitezkeen ondorioak jokoan egon.

Ebazpenak Lafarge enpresak Montcada i

Reixac-en (Bartzelona) duen zementu fabrikarekin loturik dagoen aurreko beste bati egiten dio aipu.

Orduan bertan behera geratu zen administrazio autonomikoak "hondakinetatik eratorritako erregaia" errausteko eman zuen baimena. HEE horiek dira zementuaren industriak hondakin errausketa mozorrotzeko erabiltzen dituenak. Garai hartan, gainera, Montcadako udalaren parte-hartzea saihestu nahi izan zen, "erregai" berri horiek erabiltzea ordura arte erabiltzen ziren beste betiko erregaian ordezkapen soil bat zela argudiatuz.

Epaitegiak, ordea, baimen berriak herritarrengan eta ingurumenean eragin zuzena zuela iritzi zion.

Dirudienez, eragin kaltegarri horiek ez dira kezka iturri ez enpresa horiendako ez administrazio autonomikoendako, batez ere azken hauek multinazionalak finantzatutako alderdien esku baldin badaude.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.

Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak:

Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Kolaboratzaileak:

Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK





Mikel Genbelzu, Eduardo Brun, Aritz Ganboa, Paz Gonzalez, Patxi Mikeo, Eneko Pagola eta Migel Anjel Laplana.

Irurtzun-Arakilgo azoka, bost urte bidea egiten

Arakil ibarraren hiriburuan, Irurtzunen, ospatuko da azoka igandean. Azoka salmenta zuzenaren bidez eguneratzeko proposamena indartuz doa. Goizeko 10:00etan hasiko da azoka eta Pikuxarrek bazkariarekin eta bestelakoekin osatuko du arratsaldea.

IRURTZUN

Bertako abere arrazetako animaliak, garaiko nekazal produktuak eta artisau-ogibideak, Irurtzunge kaleetan protagonistak izanen dira berriz igandean. Ekimen horrekin Irurtzun eta Arakilgo Udalek salmenta zuzenaren eta ekoizleen parte hartzean oinarrituriko ereduaren pausoak ematen jarraitu nahi dute. Eta bidean lagun dituzte Sakanako Garapen Agentzia, bertako arrazen sustapenerako elkarteak, Arbaso Euskal Herriko artisauen elkarteak, Belardi Sakanako ekoizleen elkarteak eta EHNE-Bizilur.

Bosgarren edizio honetan, aurrekoetan landutako ereduarekin egonkortu eta indartzen da, orain

aarteko hiru espazioak mantenduz: bertako abere arrazen azoka, nekazal merkatu gardena eta artisau azoka. Arakilgo Alkate Paz Gonzalez Saguesek gogoratu duenez, "betidanik Irurtzunen ganadu azokak antolatuta dira eta hemen Arakil guztiko abeltzain eta herritar guztiak biltzen ziren. Tratuak eta harremanak egiteko bilgunea zen. Azoka desagertu zen eta irudititu zitzaigun polita litzatekeela azoka berriz berpiztea". Bi helburu zituzten buruan: "Arakil eta Irurtzun ezagutarazteko eta, bestetik, ekonomia pixka bat sustatzeko".

Orain arteko balorazioaz galduta Gonzalezek esan digu

"oso ona" dela, "ikusten dugu 5. edizio honekin, nolabait, egonkortu egin dela. Gure helburua erreferente bat bihurtzea da, bai eskualdean bai Nafarroan". Orain arteko formulari eutsi diote eta hiru gune izanen ditu azokak (ikus aldameneko laukia).

Udalak eta ekoizleak eskutik

Berreskuratze lan horretan Sakanako tokiko ekoizleak biltzen dituen Belardiko Aritz Ganboa artzain arbazuarra aritu zen eta azokaren bilakaeraren lekuko da. "Bi nahiek bat egin zuten. Udalak euren lehen sektorea ordezkatzeko zuen azoka berreskuratzea nahi zuen, sozio-ekonomia alor horri garrantzia eman

eta lantzen joateko. Bestetik, Belardik Via Campesinaren (EHNE, Bizilur) Arco deialdia (ardura partekatutako nekazaritza) erantzunez, ekoizleen salmenta zuzena indartzea, plazak berreskuratzea, gizartea eta ekoizleak aurrez aurre jartzea eta beste egin nahi zituen. Bi nahiei forma eman genien".

Azokaren antolakuntzan ordezkatura dauden erakunde aniztasunari garrantzia eman dio Ganboak. "Elkarlanak fruituak ematen ditu. Bost urte hauetan gai izan gara proiektu parte-hartzaile interesgarri bat izaten". Jendeak azokaren filosofari eman dion erantzuna ere nabarmendu du artzainak, "kualitatiboki parte hartzea gero eta hobe da. Jendea postuz postu doa eta ekoizleekin hitz egiten du. Gure produktuak erostera hurbiltzen dira. Bere landa eramuarekiko eta kontsumitzen dituen produktuekiko jendearen inplikazio bat dagoela nabari duzu". Azkenik, nabarmendu duenez, "jendeak badaki Irurtzuna zertara datorren: bertako arrazak, gure mendietan egoten den abeltzaintza ereduak..." Be-

lardikoak izaera hori, elkarlanean, beste azoketara zabaltzeko prest daudela gaineratu du.

Berritasunak

Gonzalezek jakinarazi digunez, aurtengo berrikuntza Artzai gazta elkartearen laguntzarekin antolatutako gazta dastaketa eta txapelketa herrikoia izanen da, 12:00etatik aurrera plazan. Epaimahairik ez da izanen, jendeak emandako botoekin erabakiko baitu zein den gaztarik onena. Parte-hartzaileen artean zozketa izango da jarraian eta sariak banatuko dira 14:00etan. Brun forjaren oroigarriak jasoko dituzte gaztagile onenek.

Irurtzunge Pikuxar euskal txokoak bat egin du ospakizunarekin eta egitarauari segida eman dio, 15:00etan herri bazkaria antolatuz. 16:00etan Joxe Anjel Elizalde akordeolariak giroa alaituko du eta 18:00etan herri kirolak izanen dira (ikus 15. orria). Eguna despeditzeko, 19:00etan Elizalde akordeolariak dantzaldia eskainiko du. Aurreko urteetan bezala, Plazaola eta Sakanako turismo informazioa izanen da azokan.

Non zer opa dezakezu

Frontoi irekian, abereen gunea: latxa ardi arpeltz eta mutur gorriak (Aslana), Nafarroako rasa ardi (Arana) eta sasi-ardia (Sasiko), behi piriniarra (Aspina), nafar kasta eta betizua (Asbena,) Auritz arrazako zaldi-behorrak (Ascana) eta Nafarroako jaka (Jacana), euskal oiloak, antzarak (Eoala elkarteak) eta astoak.

Foru plazan, azoka gardena:

Belardiko eta EHNE-Bizilurreko 20 bat ekoizle behi esnekiak, barazkiak, karakolak, ardi latxa esnekiak, loreak, arrautzak, ardoa, eztiak, ogia eta pastak, txerriak, lekaleak eta bestelakoak ekoizten dituztenen postuak izanen dira.

Lizarra eta Amaia kaleetan, erakusketak eta artisautza:

Erabili (ehuna), Zapatarari (oinetakoak), Anitha (paper artisautza), Arnaud Araguas (makilak), Alos40 Joyas (bitxigintza), Artesania del Txoko (kiliikiak), Ytam boltoak (boltoak), Egilart zeramika (zeramika), Felix Larrañaga (talla), Brun forja (erakustaldia), Kromosoma Tailerra (haurrendako zurezko jostailuen tailerra), Otero pilotagilea (pilotak) eta Redmasai (larrua)

Frontoiaren atzean, tradizioei loturiko baserriko joko eta jolasak.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

5 000 Etxe pasiboetarako egokia

IKD Isolamendu nukleo indartsua

STV Beirak lehorrean jarrita

Aperteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea - Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 - Iruñea



Altsasuko auzipetuen egoera udaletxean presente egon zen txupinazoaren garaian.

Parlamentuan Altsasukoaz

Nafarroako Parlamentua Nafarroako Gobernuari eskatu dio Europar Batasuneko organoen aurrean egin beharrekoak egitera eskatu dio, Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna beteko dela bermatzeko.

ALTSASU
Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran Altsasuko ferietako gazteen liskarra izan zuten hizpide atzokoan. Foru gobernuari eusten dion laukoaren ebazpena onartu zen. Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiari du "egin beharrekoak egin ditzan Europar Batasuneko dagokion organoen aurrean, zehazte aldera ea horien ustez Espainiak behar bezala egin duen terrorismoaren zigor tratamenduari buruzko Europar Batasunaren aurreikuspenen transposizioa".

Horrekin batera, Parlamentuak gobernuari eskatu dio Europako dagokion atean jo dezala eta Altsasuko kasua dela-eta fiskalak egindako eskaria eta Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunaren 49.3 artikuluan aurreikusitako bat datozen zehaztu dezatela.

Azkenik, Nafarroako Gobernuari eskatu zaio "egin beharrekoak egiteko Europar Batasuneko dagokion organoen aurrean, hau bezalako egoera neurrigabeak ekiditeko irizpideak bateratzeko, Europako Gutunak eta Eurojust-ek aurreikusitakoari jarraikiz". Ebazpenaren alde Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta I-Ek egin zuten eta UPNk, PSNk eta PPK kontra.

Arrazoiak

Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta I-E taldeek sustatutako ebazpenak gogorarazten du Nafarroako Parlamentuak behin eta berririo agertu duela bere iritzia Altsasuko kasua dela-eta, eta, horri dagokionez, ezbaian jartzen du Fiskaltzaren eskaera, esanez ez duela "behar bezala egin Europako legeen transpo-

sizioa", ez gertaeren kalifikazioan (ekintza terroristak), ezta Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 49.3 artikuluan jasorik dagoen proportzionaltasun printzipioaren interpretazioan ere.

Laukoak Izaskun Bilbao (ALDE), Josu Juaristi (GUE/NGL), Marina Albiol (GUE/NGL) eta Xabier Benito (GUE/NGL) eurodiputatuen ekimenarekin lerrokatu dute beren mozioa. Eurodiputatu horiek galdera bat aurkeztu zioten Europako Batzordeari, Espainiako Estatuan Europak terrorismoari buruz emandako definizioaren "transposizio okerra" egin izanari buruzkoa.

10 hilabete preso

Ferietan herritar batzuen eta Guardia Civileko bi agenteren eta haien bikotekideen arteko liskarragatik Espainiako Auzi-

tegi Nazionaleko Fiskaltzak 375 urteko espetxe-zigorra eskatu du Altsasuko 8 gazteendako. Haietako hiruk, Adurrek, Jokinnek eta Oihanek, atzo 10 hilabete egin zituzten preso. 304 egun. Hori salatu eta haien askatasuna aldarrikatzeko hilaren 14ero bezala altsasuar mordoa mobilizatu zen. Oraingoan Altsasu bete-betean festetan dagoenez, festa giroko aldarrikapena egitekoa zen: Altsasuko peñek Zumalakarregi plazatik Foru plazara iluntzean egindako jaitsieran hain zuzen ere. Erredakzioa ixterakoan azaldu zigitenez, hiruen askatasuna aldarrikatzeko kartel eta adierazpenak izanzen ziren. Baita auzipetu guztiendako elkartasun keinuak ere.

Hala ere, ez da festetan auzipetuen alde eginen den ekimen bakarra. Gaur, ostiralero moduan, kontzentrazioa eginen da.



Altsasuko Gurasoak zinegotzi eta parlamentariekin. UTZITAKOIA

Baina ez ohiko lekuan. Jendetsua izatea nahi denez, udaletxe parreko plazatxoa Iortia kultur guneke zabalguneagatik aldatu da. Orduan ere aldaketa dago. 19:00etan izan beharrean ordu bat lehenago izanen da, 18:00etan hain zuzen ere.

Festetako hasierako etxajuarren piztean ere presente izan zen auzia. Udaletxeko aurreneko solairuko balkoian #Altsasu ez da terrorismoa leloa zuen pankarta zintzilikatu zuten. Haren ondoan jarri ziren festen hasierako etxajuarren pizte ekitaldira gonbidatutako gurasoetako batzuk. Haiek, gainera, herriko etxearen barruan hainbat alderdietako parlamentuko ordezkariekin hitz egiteko eta iritzia trukatzeko aukera izan zuten. Senideak eta haiek babesten dituzten alderdi eta koalizioetako zinegotziek eta parlamentarioek, Nafarroako lehendakari Uxue Barkosek eta Nafarroako Parlamentuko presidente Ainhoa Aznarezek talde argazkia egin zuten ere.

Herenegun iluntzean, peñak plazara iristearekin batera, altsasuarren ahotsak probatu zituzten. Guztiak ere Tximeleta taldearen doinura *Aurrera Altsasu* kantua abestu zuten.

Kontzertua

Fermin Muguruzak, Chalart 58 DJa eta Matah kantaria lagun zituela, emanaldi bikaina eskaini zuen larunbatean. Iortia bete zela, bildutakoak kantuan eta dantzan jarri zituen Irungo musikariak. Sarrerak agortuta zuden, Baratzekobide plazan jarritako karpan, zuzenean jarraitu ahal izan zen emanaldia. Bestalde, Altsasuko gurasoei harrera beroa egin zieten beste behin Katalunian.

Bideak zaintzeko ordenantza bakar bat

Ergoienako Udalak bide bazterretan zaborra ez botatzeko, non-nahi ez aparkatzeko eta bideen mantenu hobea egiteko ordenantza onartu du. Ibarreko hiru herriek zituzten ordenantzak indarrak gabe gelditu dira

ERGOIENA

Lizarragako, Unanuko eta Dorraoko kontzejuen oniritziarekin Ergoienako Udalak ibarreko mendiko pisten eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza onartu du. Apirilaren 18an sartu zen eta hurrengo hilabeteetan Ergoienako hiru kontzejuek euren herrietarako zituzten ordenantzak bertan behera utzi zituzten.

Indarrean den ordenantzan jasotzen denez, "Ergoienako herribide publikoen sarea ergoendar guztien ondarearen zati da. Berebiziko garrantzia du udal mugapeko mendi eta landetako aberastasuna zaintzeko eta hartara sarbide izateko. Funtsezkoa da herritarren arteko komunikaziorako eta bisitarien nahiz pasadizokoen batetik-besterakoak errazteko. Ongi zaindurik egoteak herritar guztiei egiten die on".

Azken ideia horrekin lotuta, Joseba Imaz Berastegi alkateak azaldu digunez, "Ergoienako dermioko pista eta bide publikoak gero eta gehiago erabiltzen dira eta beharrezkoa da haien erabilera arautzea". Horregatik, bakarrean bateratu dituzte hiru ordenantzak. Hiru asmorekin: ibarreko natur ondarea zaintzea, erabiltzaile guztiek eta bereziki herritarrek modu orekatuan erabiltzea eta erabiltzeko egokira onean mantentzea.

Argudioak

Imazek azaldu digunez, herrietako pistetatik trafikoa kendu nahi dute. Horren adibide gisa Beriain mendira igo nahi duten mendizaleek jarri ditu. Unanuko bidean gora joan eta Iturtxikin askok eta askok aparkatzen dutela. Imazek beste arazo bat badagoela ere gaineratu du, kasu honetan ingurumenekoa: jendeak bide horien bazterrean zaborrak eta hondakinak botatzen dituela. Azken hori, batez ere, Liza-



Ergoienako ikuspegia Lizarragako portutik. ARTXIBOA

"BIDE ETA PISTAK GERO ETA GEHIAGO ERABILTZEN DIRA ETA BEHARREZKOA DA ERABILERA ARAUTZEA"

rragako portutik sortzen diren pistetan dagoen arazoa da eta horri muga jarri nahiko liokete.

Ergoienako alkateak jakinarazi duenez, pista horien erabilera pixkanaka mugatzen joan nahiko lukete, ergoendarrendako eta mendian azienda duten abeltzainendako. Txartel batekin edo nola arautu aztertzeke dute oraindik udalean. Bitartean informazio kartelak jartzeko asmoa dutela aurreratu digu Imazek.

Baimenak

Ordenantzan jaso denez, debekatuta dago ibilgailu motordunetan pistetatik kanpora mendian barna ibiltzea, baita bi metro zabal baino estuago diren pistetan barna ere, non ez diren nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basogintzarekin edo behar bezala baimendutako bestelako jarduerekin zerikusia duten

ibilgailuak. Debeekatuta dago ere ibilgailua aparkatzea pistetatik eta behar bezala seinalatutako tokietatik kanpora.

Ordenantzak bi metro edo gehiagoko zabalera duten pistan eta bi metro baino estuagoak diren pistak bereizten ditu. Zabalaren araberrako erabilerak zehaztu ditu ordenantzak, beti ere, debekatuz erabilera ezohiko eta gehiegizko guztiak, bideetan kalte egiten dutenak edo trafikoaren segurtasunaren kontrakoak. Bide eta pista horietan barna basogintzako eta eraikuntzako produktuak herrestan eramatea, baita kate bidezko ibilgailuen joan-etorria ere. Bideetan eta ezpondetan hondakinak, nekazaritzako edo basogintzako produktuen hondarrak bota edo uztea ez dago onartuta. Azken horiek aparkalekuetan erretzea debekatuta dago, baita lehiaketak eta lasterketak ere. Auzoetako bideetan eta baserrietako bideetan motozikletak eta 3,5 tonatik beheitiko pisua duten ibilgailu motordunak ibiltzeko aukera dute. Ordenantzak aipatu debekuetako batzuetarako zehazten ditu ere.

Lurraren erraiak, Mendukilon, eta izarrak, Aralartik

Mendukiloko kobak eta Aralarko santutegia ezagutu eta bertatik izarrak ikusteko astronomia behaketa bihar

ARALAR

Plan desberdin eta berezia egiteko aukera izanen da bihar: Astizko Mendukiloko kobak eta Aralarko santutegia gidatutako bisiten bidez ezagutu eta santutegitik planetarioko kideen laguntzaz izarrak ikusteko astronomia-behaketa parte hartu. Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatu du, Iruñeko Planetarioaren, Mendukiloko kobazuloen, Aralarko San Migel santutegiaren eta Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin.

"Mendizerraren erraietan hasiera duen bidaia proposatzen dugu, Astizko Mendukiloko kobazuloetan hasten dena. Ondoren, Aralarko santutegia ezagutzea, gizakiaren eta natura beraren arteko harreman zoragarriaren ehunka urtetako lekuko dena, sinesmenez, mitoz eta kondairaz betetako lekua, goiaingeru santuarekiko debozioa tarteko. Eta, eguraldiak laguntzen badu, espazio zerutarraren handitasuna eta ikusgarritasunaz jabetzeko, tailer astronomikoa, santutegitik bertatik" hori da partzuergotik aipatu digutena.

Izena emateko

Plazak mugatuak dira eta alde zurrerak erreserbak egin behar dira, Lekunberriko Turismo Bulegoan (948 507 205, 948 507 204, oit.lekunberri@navarra.es). Bi talde antolatuko dira: bata, euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz. Aipatzekoa da talde bakoitzean 40 pertsonako minimoa eta 50 pertsonako maximoa betetzea beharrezkoa dela. Hortaz, izena ematerakoan hizkuntza zehaztu beharko da.

Prezioari dagokionez, pertsona bakoitzak 10 euroko sarrera ordaindu beharko du eta sarre- rarak aipatu bulegoan hartu ahal- ko dira, larunbateko 17:30ak baino lehen.

Hitzordua: bihar 18:15ean

Txangoa Astizko Mendukiloko kobazuloetan izango da, 18:15ean. Ordu bateko iraupena duen bisitan, ikus-entzunezkoa ere izango da. Gero, Aralarko santutegira igo eta 20:00etatik aurrera,




Jendea Aralarren udan.

otordu arina egiteko ordu bat eta laurdeneko tartea izango da eta bitartean, taldeka, santutegiko barnealdea ezagutzeko 20 minutuko bisitak eskainiko dira. Tarte horretan Aralarko taberna zabalik egongo da. Eta, bukatzeko, Aralartik bertatik izarrak ikusteko astronomia behaketa izanen da, ordu eta erdi iraunen duena.

Eguraldia txarra bada edo zerua estalirik badago, behaketa astronomikoaren jarduera santutegiaren barnealdera lekualdatuko da, non ikus-entzunezko baten eta zerua begizatzen lagunduko duten konexioen laguntzaz, tailer praktikoa egingo den.

Antolakuntzatik arropa beroa emateko gomendioa luzatu dute, kobazuloetan, esaterako, 8 graduko tenperatura egiten duelako.





Autoa Leitzarango Autobian Biaizpe parean.

Lanak Leitzarango Autobiako Larrazpilgo zubietan

Zubiak konpontzeko eta indartzeko lanetan sei hilabete ariko dira. Zubi bat itxita trafikoa bestetik bideratzen da

ARAKIL-IRURTZUN

Astelehenaz geroztik, eta sei hilabetez, Leitzarango Autobiako (A-15) Larrazpilgo zubietan konponketa lanak egingen dira. Lekunberrira daraman zubia itxi zuten astelehenean eta trafikoa Arakilera etortzen den bidetik desbideratu zuten. Zentzu bakoitzean norabide bakarreko erraila dago zabalik eta abiadura muga 60 km ordukoa da. Puntu jakinetan 40koa izan da. Hiru hilabete iraunen dute lanak zubi horretan. Haiek despeditean, abendu erdialdean, Arakilerako bidea itxi eta hango zubia konpontzeari ekinen diote. Orduan Lekunberrira daraman bideak hartuko du bi zentzutuan doan trafikoa.

A-15 autobian lanak irauten duten bitartean sei km-ko autobia zatiaren egonen da trafikoa norabide bakarreko erraila bakarrean, 113+700 km puntuaren

eta 117+800 km puntuaren artean. Zubietako drainatze-sistemak zuzendu, egiturazko arazoak konpondu eta iraunkortasun lanak egingen dituzte.

Leitzarango Autobiako (A-15) lan horiek Irurtzun eta Latasa (NA-1300) arteko errepideari ere eraginen diote eta haren errail bat itxiko da. Errepideko 3. km puntuan desbideratzean egingen dira aldiari, egun argitan. Izan ere, A-15 autobia zubiak errepide horren gainetik pasatzen dira eta zubien egituraren beheko partea konpondu behar dute.

2018ko otsailera arte iraunen dute Leitzarango Autobiako (A-15) lan horiek eta Acciona Construcción SA enpresak egingen ditu eta horien truke Nafarroako Gobernuak 1.239.367,98 euro (BEZ barne) pagatuko dizkio, lizitazio prezioa baino %25,02 merkeago eman ziren lanak.

Komun berriak eskolan

Ikasturtea hasterako Altsasuko Zelandi eskolan egindako lanak despedituta zeuden. Joan den urteko udan beheko solairuko komunak berri baziren, aurten lehenengo pisuan dauden txanda izan da. Lanek 56.000 euroko kostua izan dute (BEZ barne). Hezkuntza Departamentuak % 65 ordaindu du (BEZ gabe), eta Altsasuko Udalak gainontzekoa.



ALTSASUKO UDALA

Sustrai tren publiko eta soziala proposatu du

Kantauri Mediterraneo korridorearen alde apostu egiten du, Europako oinarriko sarearen barne, pertsona eta merkantziarako mistoa, europar zabalera, bide bikoitza. Egungo trenbide plataforma ahalik eta gehien erabili eta aprobetxatuz.

SAKANA

Sustrai Erakuntza fundazioak Trenbide Publiko eta Sozialaren (TPS) aldeko bere proposamena aurkeztu zuen astelehenean, beti ere, gizarte-ekonomia- eta ingurumen-errentagarritasuna bilatuz. Haren oinarria "gaur egungo trenbide baliabideak ahal bezain beste baliatu eta hobetzea da". Fundazioko kide Pablo Lorentek azaldu zuenez, TPS 2018 eta 2028 urteen artean argitea proposatzen dute. "Jendartearen aurkako, ingurumenaren aurkako, xahutzaile eta ezegokia den Abiadura Handiko Trenaren edo Prestazio Altuko Trenaren (AHT/PAT) aurrean, garraio bide jasangarri, herrikoi eta demokratiko batean datza. Garraio jasangarri bat izateko beharrezkoak diren abantailak dituen garraio bide publiko bat da ohiko trenbidea: kontsumitzen duen energia jatorri berriztagarrikoa izan daiteke, energia kontsumoa beste garraio bide batzuen baino txikiagoa da, lurraldean duen eragina txikiagoa da jada eraikia egonagatik eta eskualdeen, herrien eta hirien arteko lotura ahalbidetzen du".

Lorentek gogora ekarri zuen "inoiz indargabetu ez den plana baina Madril-Sevilla AVE eraikitzeo erabakiaren ondorioz baztertu zen 1987ko Tren Garraio bidearen Planak, Castejon eta Altsasu arteko trenbidearen bikoitzea jasotzen zuela. Bide paralelo berria bere garaian etorkizuneko instalakuntzarako utzitako espazio librea utziz eraikitzeo litzateke".

Fundaziotik salatu dute Nafarroako Gobernu guztiek, "egungo barne, aukera berdinen alde egin dute, AHT-PAT-rena. Egiteko eta mantentzeko garestiagoa den aukeraren alde. Ondorioz Nafarroan ez da gaur egungo tren sarea hobetzearen aukera eta zenbatekoa aztertu. Eta ez da inolako jendarte ezta-



Sustrai Erakuntza fundazioko kideak euren proposamena aurkezten. UTZITAKOIA

EGUNGO BIDEAREN PARALELO BESTE BAT ERAIKITZEA ETA BIEI 3. ERRAILA JARTZEA PROPOSATZEN DU

baidarik izan existitzen diren aukera desberdinen inguruan".

Proposamena

Fundazioaren proposamena egungo trenbidearen bikoitzean oinarritzen da. "Bide paralelo berria jada horretarako aski leku utziaz eginak diren lurberdinketa, zubi eta gainbideak probestuz eraikitzeo litzateke". Europako trenbide zabalera (estuagoa) egokitzeo 3. erraila jartzea proposatzen du. "Horrela egungo gaitasuna bikoiztu egingen litzateke (trenbide ibilbide bikoitza, bide zabalera bikoitzeo bakoitza) mota guztietako trenen eta merkantziei bide emanez, zabalera iberikoa eta europarrak. Ibilbidean egin beharreko hobekuntza puntualak gehitu beharko litzateke horri: tunelak, kurbak, bazterbideak, eta abar".

Trenbidea hesitua egotea proposatzen du, trenek 160-180 km orduko abiadurak lortu ahal izateko. Hala ere, "hesitzeak ingurumenean izanen lukeen eragina ondo aztertu beharko litzatekeela gaineratu du, animalien pasabideak bermatuz.

Horrekin batera, egungo Alvia trenen maiztasuna handitzea proposatzen dute: Madril-Iruñea bidaien maiztasuna 8ra igotzea eta Donsotia-Bartzelona arteko 6ra handitzea. Neurri horiek guztiek ibilbide luzeetan "zerbitzuaren hobekuntza nabarmena eta, oro har, bidaiatzeko denbora dezente murriztea espero da". Aldi berean, eskualdeko zirkulazio sistema hobetzea eta sustatzea proposatzen du.

Aldiriko eta merkantzia trenak

Sustrai Erakuntza fundazioak aldiriko zerbitzu berria proposatzen du, egunero 05:00etatik 11:00ak arte, orduero. Sakana eta Arabako Lautada hobe lotuko lukeela, ibarra hobe egitura-tuko lukeela eta zerbitzu hobe emanen lukeela dio. Horretarako trenbidean izandako geltoki eta geraleku guztiak berresku-

ratzea proposatzen du. Ibarren kasuan: Izurdiaga, Hiriberri, Uharre Arakil, Lakuntza (deskatalogatuta), Etxarri Aranatz, Bakaiku (deskatalogatuta), Altsasu (herria), Olatzagutia eta Ziordia. Altsasuko tren-geltokia indartu beharko litzatekeela nabarmendu dute.

Merkantzia trenei dagokionez, Sustrai Erakuntza fundazioak bidea hobetzea proposatzen du, "hala beharko balitz, 575 metroko luzerako merkantzia-trenak ibiltzea bermatzeko". Salgaiak garaitzen duten trenek 90 km orduko abiadura izanen luketela proposatu dute. Zenbait tokitan aldapak murrizteko lanak egin beharko direla aurreikusten du. Bi trenbideetan jarriko litzatekeen hirugarren errailak merkantzia-trenek ere erabil lezaketela nabarmendu dute, hala, "mugetan ez litzateke trenaren derrigorrez aldatu beharko".

Fundazioko kideek, gainera, Europako zabalera merkantziatarako loturak izateko aukerak ikusten du korridoreko sei puntutan; Altsasu da bat. Bide batez, euren merkantziak errepide bidez garraiatu beharrean trenbidez garraiatzen duten enpresendako ekonomia pizgarriak proposatzen dituzte.

Gaur egun ERMTS segurtasun sistema darabil trenbide korridoreak. Hura ordezkatu eta Europa osorako homogeneoa den segurtasun sistema ezartzea proposatzen dute fundaziotik.



Sustapen Ministerioak AHTren kudeaketa bere gain hartuko du, Nafarroatik proposamenari erantzun ez zaiola argudiatu du.

Trenbideari buruzko ekarpenak egiteko aukera

Trenbide-korridoreari buruzko informazio eta gizarte-eztabaida fasea hasi du Nafarroako Gobernuak. Horren barruan Sakanan informazio-saioa antolatu du, Altsasun izanen dena, hilaren 27an.

SAKANAN

Nafarroako Gobernuak Kantauri-Mediterraneoko trenbide-korridoreari buruzko informazio eta gizarte-eztabaidako bide bat jarri du eskuragai Gobernu Irekiaren webgunean, nahi duten pertsonak, erakundeak eta taldeek beraien ekarpenak egin ditzaten eta Gobernuak haiei erantzun diezaien. Eztabaidatzeko gunea astelehenaz geroztik dago zabalik. Han proiektuaren laburpen bat eta 23 eranskin jaso ditu foru administrazioak.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, "irekia eta iraunkorra den prozesu baten lehen fasea da; trenbide-korridorearen proiektua garatzen den bitartean

gertatzen diren aurrerapenen berri emango diegu herritarrei".

Prozesu horretan, korridorea eraikitzen den Nafarroako eremuen iritzia kontuan hartuko du. Horrela, informazio-saioak antolatu ditu. Sakanari dagokion informazio bileran Altsasun egingen da, irailaren 27an. Gainera, foru administrazioak jakinarazi du web-orri iraunkor bat ere sortuko duela aurki, proiektuaren garapenari buruzko nobedade guztiak jasotzeko.

Bi aukera

Foru gobernuari eusten dioten alderdiek gobernu-akordioan jaso zuten, etorkizuneko trenbide-korridore bidaiariendako

eta merkantziendako izan behar du, ahalmen nahikoa duena eta nazioarteko estandarrak betetzen dituena. Nafarroako Gobernuaren iritziz hori egiteko bi aukera daude. Lehena, egungo trenbidearen paraleloa izanen litzatekeen beste bide bat eraikitzea, nazioarteko zabalera duena (estuagoa), eta egungo trenbidean 3. erraila jartzea atzerriko trenak ibili ahal izateko. Gobernuak azaldu duenez, aukera horrek zenbait tokitan ibilbidea aldatzea ekarriko luke, "Europako estandarrak betetzeko".

Bigarren aukera gaur egungo trenbidea mantentzea eta bide bikoitzeko trenbide plataforma berria eraikitzea litzateke. Eu-

ropako zabalera luke eta han distantzia ertain eta luzeko trenak ibiliko lirateke, bai bidaiariak bai merkantziak eramateko. Egungo trenbidea, berriz, bai bidaiariaren aldirietako zerbitzuetarako bai zenbait merkantzia garraiatzeko erabiliko litzateke. Gobernuaren iritziz, "hau epe luzeko konponbidea da eta ahalmen erreserba handiena ematen duena".

Gobernutik diote bi aukerak programa-akordioa betetzen dutela, "baina bigarren aukera da Sustapen Ministerioak proposatzen duena. Inbertsio handixeago eskatzen du, baina erreserba ahalmen handiagoa lortzen duen konponbidea da, bi bide ordez hiru baititu". Foru administratziotik gogorarazi dute estatua dela trenbide eskumenak dituenak eta hura pagatuko duena. Gobernuak gaineratu duenez, "prestazio handiko trenen inbertitzeak ez dakar dirua gutxitzea Nafarroak dituen premietarako. Nahiz eta premia horiek giza mailakoak izan, edo ekonomia-garapenekoak, edo bestelakoak".

Egungoaren ezaugarriak

Gobernutik azaldu dutenez, egungo trenbideak ez ditu Europako oinarriko sarearen estandarrak betetzen hainbat alorretan: bidearen zabalera, abiadura, karga, gehieneko malda edo trenen luzera. Egungo trenbidea 1870ean diseinatu zela gogorarazi ondoren. Zatirik gehienean bide bakarra du eta, "ondorioz, ez du ahalmen nahikorik eskaintzen. Nahiz eta Nafarroan trenbidez oso merkantzia gutxi garraiatu (% 0,71; Espainian, % 4 eta Europan % 17) eguneko zenbait unetan sare saturatuta egoten da".

Proposamena

Sustrai Erakuntza fundazioren web orrian dago proposamen osoa: www.fundacionsustrai.org

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa

24º taktua

28º taktua

35º taktua

3 litroko botilak

Geltoki guzua 11 - Altsasu
948 467 317 - 696 979 270 - hijosdegoikoetxea.com

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Ondo pasa festetan!

948 467 876 - Altsasu

MAPFRE
Ongi pasa festetan!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com - 948 563 354
San Juan 48 behekoa - Altsasu



Urbasako saroiko lezean eraildakoen senideak hilarriak aurrean dituztela. BALBINO GARCIA DE ALBIZU

Hiltegia izan zena hilobi duin bihurtu dute

Urbasako saroiko lezean eraildakoen senideak larunbatean elkartu ziren atzera ere. Oraingoan identifikatutako beste sei pertsonen izenak dituen hilarriaren mustutzeak eman zuen elkartzeko aukera. Aurretik zegoen hilarria mantendu egin dute.

URBASA

Sakanan ditugun memoria toki ugarietako bat da Urbasako saroiko lezea. 1936ko estatu kolpearen ondoren han hamar gizon eraill zituzten. Haietako bost etxarriarrak dira eta irailaren 6an 81 urte bete ziren hil zituztela. Efemeridea gogoan, han hil ziren pertsona guztien 20 bat senide elkartu ziren hilarri be-

riaren mustutze ekitaldi xume eta intimoan. Elkarrekin partekatze asko dute guztiek ere eta mendiko ekitaldiaren ondoren bazkaria egin eta euren kontuekin segitu zuten.

Nafarroako Gobernuaren dagokion baimenarekin lezearen ondoan 1962ko lastailaren 31tik dagoen hilarria kendu, garbitu, txukundu eta berriro jarri zuten

joan den ostiralean. Sinbolo bat da hilarri hori errepresaliatuen omenez estatuan jarri zen aurrenekoa izan baitzen. Hartan Balbino Garcia, Gregorio Garcia eta Balbino Bados ameskoarren izenak daude idatziak.

Haren aldamenen antzeko estiloko hilarri berria jarri dute, 2015ean identifikatu zituzten sei pertsonen izenekin: Clemente

Araña Migel, Narciso Artola Razkin, Paulo Garciandia Arin, Andres Gonzalez, Antonio Maiza Miranda etxarriarrenak eta Jose Urbizu zegamarrarena. Izenen gainean Picassoren *Gerrika* koadroko irudiaren zati bat eta *Inoiz gehiago ez leloa* idatzia dago.

Hilarrian beste izen bat jartzeko adina toki utzi dute. Izan ere, Aranzadi zientzia elkartearen 2015 urtean egindako ikerketak lezetik ateratako hamar gorpuzkietatik bederatzi identifikatu zituen.

Hilarrien parean, lezearen ahoa itxita dago. Arlosa txiki batzuekin haren ahoa litzatekeena mugatu dute, hilobiaren itxura emanez. Han bertan egin zuten senideek lore eskaintza. Zegamako hilerrian dagoenarena ez beste, gorpuzki guztiak lezean daude 2015eko garagarri-laren 28tik.

Liburua

Identifikazio horiek guztiak posible egin ahal izateko ikerketa lan handia egin dute Balbino Garcia de Albizu Jimenez ameskoarrak eta Amaia Urkijo Artola altsasuarrak. Aurrenekoa Ameskoako historia-memoria liburu batean jasotzeko lanean zebilen. Bere senidea saroiko lezean zegoela bazekien, baina beste gorpuzki batzuk zeudenez, beste familia batzuk kezka izan zuten. Historia, dokumentuak eta lekukotzak jaso zituen. "Banekien ameskoarrak ez zirela. 7 edo 8 erkidegoetako eta 14 probintzietako hildakoak daude". Horrela bat egin zuten mendiarren bi aldeetako ikerlariak 2014ko martxoan. Ameskoarrak eta altsasuarrak zuten informazioa partekatu eta aztertzen hasi ziren.

Urbasan gertatutakoagatik Garcia de Albizuk bere liburua, beraz, Ameskoako mugetatik atera behar izan du. "Etxarri Aranzako eta Olatzagutiko kontu asko daude, Altsasukoak ez hainbeste".

Bi ikerlarien lanak saroiko lezean hil zituzten pertsonen izenak jakitea ekarri zuen, gero DNA ikerketak berretsi zuena. Otsaportilloko lezerako 13 edo 14 izen proposatu dituzte. Batzuk zehaztasun osoz, beste batzuk han egoteko aukera handia dutela seinatuz. Kopuru hori dute eskuartearen 1978an egin zen buru-hezurren kontaktak emaitza hori eman zuelako. Laborategian lau pertsona identifikatu dituzte. Ekialako beste bat han erail zutela dakite indianoa zelako eta bere jabetzetan inisialak markatzen zituelako eta haietakoren bat opatu delako. "Bere familiak 1977tik daki han dagoela".

¿Qué hicimos aquí en el 36? La represión de civiles en retaguardia por su ideología en las Améscoas y Urbasa liburua da ikerketaren emaitza; Etxarri Aranzaten eta Altsasun salgai dagoena. Kapitulu zabalenetako batek *El matadero de Urbasa* izenburua du.

Larunbatean "zirkulua itxi" zutela esan digu Artolak, gorpuk atera, identifikatu eta lur ematearekin hasi zena. Hiltegia zena hilobi txukun bihurtuta aitona non oroitu badute.



PORTUKO
OKINDEGLIA
egiazen artisauak

Altsasu
948 563 822
Lantegia
948 467 153
Etxarri Aranzatz
948 460 988

Ongi pasa festetan!

Txalaparta

Taberna

PESETAN BERRIZ ERE...
GUDA DANTZAK GUREAN

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Kaixo
Kafetegia- Jatetxea

JATETXEA - RESTAURANTE - KAIKO - BAR-CAFE

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com

Taxi
Jose Iturralde
629 42 80 25

9 lagunendako Taxia / Irurtzun
taxijoseiturralde@gmail.com
www.taxijoseiturralde.com



Eta zu,
ba al zaude
**Sakanako
gidan?**



informazioa:

948 564 275

publi@gualxe.eus | publizitatea@gualxe.eus



2016an jaiotako altsasuarrek festetako zapia edo ttattarra jaso zuten udaletxe aurrean egindako ekitaldian.



Naiara Diez Gernika taldeko saskibaloia jokalaria altsasuarrak piztu zuen etxajua.



Etxajua lehertu eta berehala, peñen kalejira hasi zen.



Iluntzero Larrain Dantza eta Altsasuko Zortzikoa dantzatzen dira Altsasuko Foru plazan.



Zezensuzkoak etxeko txikienak eta handienak ere erakartzen ditu gauero Foru plazan egiten duen irteeran.



Tximeleta taldearekin dantza eta kanta aritu ziren altsasuarrak.

ALTSASUKO FESTAK

OSTIRALA 15

9:00 Dianak.

Altsasuko gaita-jotzaileekin.

10:00-13:00 LXXXVII Altsasu bizikleta lasterketa.

Altsasuko Kirol Elkarteak udalaren laguntzarekin antolatuta. Irteera eta sari banaketa (13:00etan) Altsasuko Kirol Elkartearen egoitzan.

11:30-13:00 Haurrendako poniak.

lortiake zabalgunean.

11:30 Hamaiketako Foru plazan.

Beti Jaten gastronomia-elkarteak eskainia.

12:00 Omenaldia herriko nagusiei.

Abardia jarriko zaie etxean, Udal musika eskolako musikariek girotuta.

13:30 Eguerdiko kontzertua.

Minore laukotearekin Foru plazan.

14:30 Nagusien omenezko bazkaria.

lortia Kultur Gunean. Ondoren dantzaldia 20:00ak arte.

16:00 Peñen kafea eta kalejira.

Foru plazan. Merienda eta zurrapapote txapelketa ibilbidean zehar

17:00 Play Back lehiaketa eta txokolate-jana.

lortia zabalgunean, txokolate-jana Zubiondo elkarteak antolatuta.

17:30 XLVIII. Otadiako Kristo Deuna pilota txapelketaren finala.

Burunda frontoian Altsasuko Kirol Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta.

19:15 10 urte dantzan.

10 urte Iskiza erakustaldia lortia zabalgunean. Iskiza klubak antolatuta udalaren laguntzarekin.

19:30 Japoniar bonbak jaurtiketa eta buruhandiak.

Foru plazan.

19:30-21:30 Mexikanak.

Mariachi Imperial Elegancia mexicana taldearekin Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera.

Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa.

Burundar Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

Foru plazan.

22:30-00:30 Gazte gaua.

Txumasketa dj-a Garbitoki eraikinean. Eraman bokata, udalak freskagarriak.

00:00 Kontzertua:

Huntza eta Los del Rayo Foru plazan.

LARUNBATA 16

9:00 Dianak

Haizaldiko gaita-jotzaileekin.

10:00 Sakanako I Iristaketa trofeoa.

Zumalakarregi plazan. Antolatzailea Patin Sakana udalaren laguntzarekin.

11:30 Hamaiketako.

Amandrea elkarteak eskainita Foru plazan.

12:00 Altsasuko erraldoi eta buruhandiek kalejira.

Herritik zehar. Irteera: lortiake zabalgunetik.

13:00 Eguerdiko kontzertua.

Burundar txistulariekin Foru plazan.

15:00 Herri bazkaria.

lortiake zabalgunean. Ondoren dantzaldia Ken bat taldearekin.

16:00 Peñen kafea eta kalejira.

Foru Plazan. Merienda ibilbidean zehar.

16:00 Eskolarteko txirindularitza proba.

Ginkana eta sari banaketa Zumalakarregi plazan Burunda Txirindularitza Elkarteak udalaren laguntzarekin antolatuta.

19:30-21:30 Zumba

Haurrendako Foru plazan.

19:30 Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak.

Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera.

Zumalakarregi Plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa.

Burundar Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin Foru Plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

Foru plazan.

22:30-00:30 Gazte gaua.

Txumasketa dj-a Garbitoki eraikinean. Eraman bokata, udalak freskagarriak.

00:00-03:00 Disko festa.

Oihan Vegarekin Foru plazan.

00:00-02:00 Peñen igoera.

Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazaraino.

DOMEKA 17

9:00 Dianak.

Haize Berriak bandarekin.

11:30 Hamaiketako.

La Encina kultur zentroak eskainita Foru plazan.

11:30-14:30 Txiki parka eta Txu-Txu tren.

Zumalakarregi plazan.

13:00 Eguerdiko kontzertua.

Celtic Rock & Reels, Irlandako musika eta dantza Foru plazan.

14:00 Munduko arrozen dastatzea.

Bazkalondoa izanen duen bazkari irekia Herri Mugimenduak, Gizarte Zerbitzuak eta Immigrazio Zerbitzuak antolatuta.

16:00 Peñen kafea eta kalejira

Foru Plazan. Meriendak ibilbidean zehar.

16:30-19:00 Txiki parka eta Txu-Txu tren.

Zumalakarregi plazan.

17:30 Pilota partida profesionalak.

Aspeko pilotariekin Burunda frontoian.

19:00-22:00 Bandtzaldia:

Haize Berriak banda eta Aiko taldearekin erromeria Foru plazan.

19:30 Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak

Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera

Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru Plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa

Burundar Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa

Foru plazan.

23:30 Festen agurra

Azken petardo-sorta udaletxean. Ondoren Peñen kalejira.

HERRI MUGIMENDUEN EGITARAUA OSTIRALA 15

Dianak txarangarekin

14:30 Makarron-jatia

16:00 Peñen kafiek

17:00 Zurrapapoteua

18:00 Altsasukoak aske kontzentrazioa lortiake zabalgunean.

19:00 Kalera, kalera.

Manifestaziya plaza.

20:00 Jaitsiera.

21:00 Our Fight

Kontzertua gaztetxien.

22:00 Askapena afaia karpan

02:30 Karpan Tirri & Tery

04:00 Magrak eta jolasa

Gaztetxien.

LANBATA 16

15:00 Herri bazkaia

16:00 Peñen kafiek

19:30 Errepresioaren aurrean, Herri Erantzuna.

Manifestaziya plaza.

20:00 Jaitsiera

22:30 Ipar folk

Kontzertua karpan.

00:00 Igoera

04:00 Magrak eta jolasak.

Gaztetxien.

DOMEKA 17

11:00 Munduko Arrozak.

Prestaketa karpan.

12:00 Manu eta Maskin maguek.

Karpan.

14:00 Munduko Arrozen dastaketa

16:00 Peñen kafiek

17:00 Elektrotxaranga

20:00 Jaitsiera

00:01 Kalejira txarangakin



GUAIXE

01:30 Altsasuar musika jartzailien arteko liskarra.

Karpan: JeyKey dj, PVD dj eta sorpresak.

KALEZ KALE PEÑAREN EGITARAUA OSTIRALA 15

Bazkaria

Kafea

Kalejira

Kolore festa

LARUNBATA 16

Herri bazkaria

Kalejira

Mojitada

Mozorro lehiaketa

DOMEKA 17

Bazkaria

Kafea

Kalejira

23:30 PatxiPunk dj Txalaparta

tabernan



Foruzaingoaren festetarako plana indarrean dago

Ohiko zereginei peñen jaitsieran trafikoa bideratzeko ardura gehitu zaie.

ALTSASU

Altsasuko segurtasuneko tokiko batzordean erabakitakoaren arabera, festetarako segurtasun zerbitzu berezia izanen da. Foruzaingoa eta Udaltzaingoa koordinatuki ariko dira festetan, 24

ordutan, antolatutako ekitaldiak behar bezala gara daitezzen. Zerbitzu horren berritasuna peñen jaitsieran izanen da: Foruzaingoa arduratuko da Zumalakarregi eta Foru plazen arteko trafikoa bideratzeaz. Bestela, ohi bezala,

hiri segurtasuneko kontrolak egingen dituzte festetan, droga trafikoa eta arma eta objektu arriskutsuen edukitzea atzemateko. Saltzaile ibiltariak halakorik duten ere aztertuko dute. Bizikleta probaren 88. edizioan ariko dira foruzainak. Foru poliziak jakinarazi duenez, alkoholemia kontrolak asteburuan eta gauzez areagotuko dituzte.

Segurtasun aholkuak

Foruzaingotik festetarako oinarritzko segurtasun aholkuak za-



baldu dituzte. Etxean ez daude hiritarrei etxea giltzez ixtea eta irisgarriak diren leihoak ixtea gomendatu du foru poliziak. Aldi berean, zorro-lapurren ebasketak eragozteko norberaren

jabetzak uneoro adi zaintzeko eskatu dute. Azkenik, alkohola edo bestelako sustantzien kontsumoaren eraginpean daudela susmatzen dutenek ibilgailuak ez hartzea gomendatu dute. Kontrol puntutan aurreko etilometria probak egiteko aukera izanen dela gaineratu dute. Azkenik, Foruzaingotik azaldu dutenez, "polizia intereseko edozein susmoren aurrean 112 telefonora hots egin, patruilak bidaltzeko, hobe baita alarma faltsua delitua egin denean esku-hartzea baino".



IRENE URROZ

Festetan, majo

Ospakizun betean pasa zuten asteburua etxeberriarrek. Biaizpe ondoko herrian goizetik gaueko ordu txikietaraino festa giroa nagusitu zen: etxez-etxeko errondak, bazkari-afariak, pintxo-poteak, dantzaldiak, herrian hain berezkoa duten entzierro berezia, mahai jokoak, pilota partidak, dantzaldiak eta bestelakoak.



Agur festei

Festa batzordeak prestatutako festei batzordekide batek eman zien hasiera eta, haiek atondutako egitarauari segituz segitu zuen ospakizunak, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere. Asteburuan magia, pilota, dantzari txikiak, kale antzerkia, otamenak, kirola, zezenzuskoak, dantzaldiak eta beste izan zituzten.



MAIDER UHARTE

Hiriberriarrak ederki

Ostegunean gazte egunarekin hasi eta igande iluntzeko zezenzuskoarekin despeditu ziren festak Hiriberrin. Tartean primeran pasatzeko egitarau zabalaz goatzeko aukera izan dute herritarrek eta bisitariak: bazkariak, otamenak, urdaiazpiko jaurtiketa, mahai-jolas txapelketak, haur jolasak, gurdirocka, mozorro festa, dantzaldiak eta beste.



Intxostiarren festa

Seigarren urtez Altsasuko zabalguneko festak ospatu ziren larunbatean. Zumalakarregi plaza Intxostiako festen erdigunea izan zen. Hantxe mexikar doinuak, haur jolasak, magia, kontzertua, zezenzuskoa eta dantzaldia eta beste izan ziren. Intxostiako festetako aurreneko kalderete txapelketan Agustin Hernandezen kuadrilak irabazi zuen.



Azalpenak jasotzen.

Leziza ubeldea bertatik bertara ezagutzera

Bisita gidatua ubeldea zaborrez garbitzeko baliatu zuten. Bukatzeko aatea izan zen.

ARBIZU

Haur eta heldu, 20 bat pertsona elkartu ziren ubeldera egindako bisita gidatuan. Arbizu zeharkatzen duen Leziza ubeldea hobe ezagutzeko aukera izan zuten guztiek, Asun Berastegi biologoak hainbat azalpen eman zituelako. Besteak beste, Leziza non jaio den, ubeldia zer den, txabolak edo horrelakoak ubeldiaren ondoan jartzeko garaian kontuan hartu beharrekoak, ubeldian opa ditzakegun animaliak, inguruan bizi diren ugaztunak eta txoriak, landare-tza... Ikusitako arrain edo karramarroen inguruan zalantzak argitu zituen Berastegik.

Oberenak eta Uhartek Altsasuko finala jokoan

PILOTA Burunda pilotalekuak hartuko du 28. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko finala, gaur, ostiralean, 17:30ean. Sari emate ekitaldian Sociedad Deportiva Altsasuak Juan Martinez de Irujori eta Aitor Zubietari aitortza egingen die

Aurreko larunbatean jokatu zen Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) hainbat babesleen laguntzarekin antolatutako 28. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko bigarren finalerdia. Hasieran Pilotajauku pilota eskolako ki-muen mailako partida izan zen: Mitxelenak eta Igoak 18 eta 8 hartu zituzten menpean Gasco eta Azpeitia.

Torneoari dagokionez, lau t'erdian Ansa altsasuarrak ordezkatu zuen Oberena eta Erreka-ko Barandiaran izan zuen aurkari. Partida gogorrean, Ansa ezer gutxi egin ahal izan zuen Barandiaranen erasoan aurrean. Sakez 5 tanto egin zituen Errekakoak. 9 eta 13ra gerturatu zen altsasuarra, baina, azkenean, 25 minutuko partidari, Barandiaranek 18 eta 9 irabazi zion.

Buruz burukoan Oberenak berdintzea lortu zuen, Garciak 18 eta 13 irabazi baitzion Errekako Elizalderi, partida gogorrean. Sakez 7 tanto sartu zizkion Errekakoari.

Horrela, azkeneko partidari, binakakoan, erabaki zen zein talde sailkatuko zen gaurko final handirako. Oberenak Mata eta Irurita pilotariak hautatu zituen eta Tainta eta Jon Gorriti uhartearra, aldiz, Errekak. Oberenakoak uneoro aurretik egon ziren



Ansa, eskuinean, finalerdian hartutako irudian. Gaur Espinal izango du arerio. SDA

(9 eta 2, 14 eta 7...) baina Taintak eta Gorritik 16 eta 15 gerturatzea lortu zuten. Hortik aurrera bi bikoek izugarri sufritu zuten eta, azkenean, 22 eta 17 irabazi zuten Matak eta Iruritik eta bere klubak, Oberenak, gaurko finalerako sailkatzea lortu zuten.

Irujori eta Zubietari omenaldia
Finalean, SDAk omenalditxoak egingen die Juan Martinez de Irujori eta Aitor Zubietari, bi pilotariak afizionatuen mailan eta profesionaletan egindako ibilbideari aitortza egiteko.

28. Otadiko Kristo Deuna

Finalak

- **Sarrerako partida:** Agirretxe-Ulaiar / Olabide-Ortigosa (Pilotajauku)
- **Lau t'erdian:** Espinal (Uhartek) / Ansa (Oberena)
- **Buruz buru:** P.Etxeberría (Uhartek) / Garcia (Oberena)
- **Binaka:** Yoldi-Peñas (Uhartek) / Mata-Irujori (Oberena)

Lasa, Ezkurdia eta Zabaleta igandean Altsasun

PILOTA Igandean, 17:00etan, pilota jaialdi bikaina antolatu du Aspek pilotari sakandarrekin

Altsasuko festetarako pilota jaialdi ederra antolatu du Aspek. Jaialdia zabalitzen duen partidari Adur Lasa ariko da. Etxarrikoak Jakarekin osatuko du bikotea, Mendizabal III.aren eta Erostarberen kontra aritzeko. Eta ondoren iritsiko da partida nagusia: Joseba Ezkurdia arbizuarrak eta Jose Javier Zabaleta etxarrendarrak biko osatuko dute, Altuna III.aren eta Larunberen kontra jokatzeko.

Sarrerak salgai daude, aurretik, 661 259 009 telefonoan. Igandean, 12:30etik 13:30era eta 16:00etatik aurrera zabalduko da txarteldegia.

Ezkurdia eta Zabaleta, San Mateotara

Berrikuntza garrantzitsua dakartzate igandean hasiko diren San Mateoek: Aspeko eta Asegarceko pilotariak elkarrekin jokatu dute, nahastuta. Joseba Ezkurdia eta Jon Ander Albisu astelehenean sartuko dira lehian; Irribarria eta Urrutikoe-txea izango dituzte aurkari, ikusgarria espero den lehian. Galtzaileek Olaizola II.a eta Zabaleta izanen dituzte zain asteazkenean eta irabazleek ere aurkari berberen kontra aritu beharko dute ostiralean.

Aizkorarekin autoa moztea, Irurtzungo desafioa

HERRI KIROLAK Igandean, 18:00etan, azokan murgildua dagoen Irurtzungo plazan

Igandeko Irurtzungo eta Arakilgo Ganadu Azokaren harira, herri kirol jaialdi berezia antolatu dute igandean.

Desafio berezia izanen dute aurrez aurre Mikel Genbelzuk eta Jon Lopezek. "Kotxe bat aizkorarekin erdibitzea, hori da desafioa. Youtuben ezaguna da Brutus, aizkorarekin auto bat erdibitzen. Beraren kontra apustua egingea nahi genuen, baina ez du onartu eta azkenean Jon Lopezek kontra ariko naiz. Nik ez dut sekula moztu, ez egurra ez ezer, eta bera egurrekin hasi berria da, Sakanako Aizkora Eskolan. Xantia batzuk ekarri ditugu, eta bakoitzak bat erdibitu beharko du. Kosta egingo zait, seguru, baina saiatuko naiz eta ea zer ateratzen den" adierazi du Mikel Genbelzu irurtzundarrak.

Apustu berezi horretaz gain, aizkora erakustaldia izango da Irurtzunen. Eneko Pagola, Xabi Lizaso, Mikel Razkin eta Beñat Jauregi ariko dira. Berriak guztiak, orain dela gutxi hasiak, hiru Sakanako Aizkora Eskolakoak. Eta, tartean, Mikel Lasartek gidatzen duen Sakanako Harrijasotze eskolan trebatzen diren harrijasotzaileek erakustaldia egingen dute.

Amaya
Okindegi-gozotegia

**ZERBITZU BERRIA
BETIKO TOKIAN**

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Lagun Artea eta Etxarri Aranatz, ligari ekitera

FUTBOLA Igandean IMQ Kopako partidan Lagun Arteari 1 eta 3 irabazi zion Etxarri Aranatzek, Lakuntzako Zelai Berrin jokatuako partidan. Bi taldeek asteburu honetan ekingo diote preferente mailako 2017/2018 ligari, etxean

Asteburuan IMQ Kopako hasierako faseko azken jardunaldia jokatu zen. Lagun Arteak eta Etxarri ez zuten ezer jokoan, Lagun Artea hurrengo faserako sailkatua baitago eta Etxarri, aldiz, aurreko partidak galdu eta gero, ez zuelako sailkatzeko aukerarik. Baina gertuko herrien arteko partidek beti dute zerbait berezia eta denboraldiko lehen derbia irabaztera atera ziren bi taldeak.

Etxarri hobeto moldatu zen Lakuntzako Zelai Berrin. Aukera gehiago izan zituzten. Lagun Arteako atea Adur Kanpo atezain gazteak defendatu zuen, beste bi atezainak lesionatuta daudelako, eta aipatu beharra dago 16 urteko gaztea ongi ibili zela. Geldialdi onak egin zituen baina 38. minutuan Etxarriko Saezek txurien atea zulatzea lortu zuen. Bigarren zatian Lagun Arteak gol aukera politak izan zituen, tartean Enekok eta Maizak, eta azkenean Iturbide izan zen berdinketaren gola lortu zuena.

Partidaren azken txanpan fisikoki gehiago izan ziren etxarriarrak eta Arratibelek 88. minutuan eta Artiedak 90. minutuan sartutako golei esker, 1 eta 3 irabazita itzuli ziren Etxarriara gorritxoak.



Etxarri eta Lagun Arteak partida entrenigarria eskaini zuten. GUAIXE

Asteburuan hasiko da liga

Preferenteko I. Mailan ariko dira Lagun Artea eta Etxarri Aranatz. Hurrengo taldeak izango dituzte bidaide: Aibarés, Mutilbera B, Arrotxapea, Urrozterra, Infanzones, Doneztebe, Beriain, Lagunak, Castillo Tiebas, San Andrés, Amigó, San Jorge, Artajonés eta Ardoi B.

Ligari etxean ekingo diote. Lagun Arteak igandean Aibarés taldea hartuko du Zelai Berrin, (17:30) eta Etxarri Aranatzek Mutilbera B izango du aurkari larunbatean San Donaton (16:30).

Olaztiarrak Ziordiko Futbol 5 Txapelketako txapelkun

II. Ziordiko festetako kimuen Futbol 5 Txapelketa antolatuta zuten larunbatean Ziordian. Lau taldek hartu zuten parte: Uhartarakilgo Aralar Mendi, Olaztiko Sutegi, Urdiain eta Ziordia. Partidak jarraituzera eta taldeak animatzera jende asko hurbildu zen. Finalerdietan, Sutegik 7 eta 4 irabazi zion Aralar Mendiri eta Ziordiak 4 eta 2 hartu zuen menpean Urdiain. Beraz, Ziordiko festetako trofeoak ondoko herrira egin zuen ihes.



Osasuna Magnak asteburuan egin zuen 2017/2018ko denboraldi aurkezpena. XOTA

Osasuna Magnak iazko denboraldia hobetu nahi du

ARETO FUTBOLA Nafarroako Kopa irabazi eta gero, gaur Lehen Mailako Ligari ekingo dio talde berdeak

Gaur, ostiralean, hasiko da Lehen Mailako Areta Futboleko liga: gaur bertan Osasuna Magna Xotak Santiago Futsal taldea hartuko du Anaitasuna pabilioian, 20:30ean.

Aurreko denboraldia ikusgarria izan zen eta hori hobetzera nahiko luke taldeak. "Aurreko denboraldia ikaragarria izan zen, eta oso zaila izango da halako zerbait gaintzea. Badakigu gure zale askoren itxaropenak oso handiak direla, eta guk dena emango dugu helburua lortzeko edo hobetzeko. Gure jokalariek guztiak klubeko parte sentitzen dira, koloreak sentitzen dituzte eta ea zaleei poztasunen bat ematen diegun" azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Hiru irurtzundar

Hamabi jokalariek osatzen dute Osasuna Magna. 40 urte bete dituen Javier Esevenri da tal-

deko kapitain handia. Otsagikoak oraindik sasoi betean jarraitzen du. "Aurtengo liga konplikatua izanen da. Hortaz, ezinbestekoa izango da jokalarien, juntaren, babesleen, taldearen eta zaleen arteko batasuna mantentzea" nabarmendu zuen kapitainak aurkezpenean. Jokalarietatik hiru irurtzundarrak dira: Asier Llamas atezaina, Roberto Martil atzelaria eta Dani Saldise hegaleko jokalaria. Haiekin batera Eduardo Filipe Sousa, Araça, Victor, Alvarito, Alex, Bynho, Rafa Usin eta Eric Martel jokalariek osatzen dute taldea.

Nafarroako Kopako txapelketa

Aurreko ostiralean Nafarroako Kopako finala jokatu zuten Osasuna Magna eta Aspil Vidal Ribera de Navarra taldeek Erriberrin. Final lehiatuan, 1 eta 0 irabazi zuten berdeek eta bigarren urtez irabazi zuten Kopa.

Ziordiko Haur lasterketa

ATLETISMOA Ziordiko festetan kirolek festen programako parte handi bat hartu zuten. Horrela, I. Ziordiko Haur Lasterketa antolatuta zuten Ziordiko Running Taldeak eta Ziordiko festen batzordeak. Guztira 90 neska-mutikok hartu zuten parte, primerako giroan. Antolatzaileek babesleek proba aurrera atera ahal izateko emandako laguntza eskertu zuten.



J.R. RAMIREZ

DUATLOIA Imazdarrak txapelkunak Lizarrako Duatloian

Sakana Triatloi Taldeko duatleta gazteak bikain ibili dira Lizarran. Aurrebenjaminetan, Oihan Andueza 2.a sailkatu zen eta Asier Razkin 5.a. Benjaminen mailan, Ekain Imazek irabazi zuen eta Alain Razkin 2.a sailkatu zen. Kimuen mailan, Hego Lakuntza 5.a sailkatu zen eta haurren mailan Nahia Imazek erraz irabazi zuen.







Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
 El Ferial: 1 - 948 467 950 / Isidoro Melero - 948 467 725
www.pescaderiamariaeugenia.com



ESPAINIAKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

Munduko txapelduna

IRRISTAKETA Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrak munduko azkarrena izaten jarraitzen duela erakutsi zuen Txinan jokaturako World Roller Games mundialetan: 100 m esprintean urrea lortu zuen (9,813 segundo). Horretaz gain, 500 m esprintean brontzekoa izan zen, 300 m erlojupekoan zilarrezkoa eta zirkuituari itzuli batean, zilarrezkoa. Zorionak!



UTZITAKOA

Kriteriuma Etxeberriarendako

TXIRRINDULARITZA Asteburuan juniorren Udazkeneko Kriteriuma jokatu zen Oñatin eta Liernian, hiru etapako proba. Intersport Irabiako Josu Etxeberria iturmendiarrak bigarren etapa irabazi zuen eta bigarrena izan zen lehen etapen eta erlojupekoan. Horrela, bera izan da txapelduna (3:40:50). Bere taldekide Etxezarreta 23.a sailkatu da.

88. Altsasu probak Martin Zelaia omenduko du

TXIRRINDULARITZA Martin Zelaia izan da Altsasuko lasterketa beteranoa irabazi zuen altsasuar bakarra, 1960an. Gaurko txirrindularitza lasterketa despeditzerakoan, sari ematean, Sociedad Deportiva Alsasuak omenalditxo egingo dio

Gaur, ostiralean, goizeko 10:00etan Sociedad Deportiva Alsasuaren (SDA) egoitza paretik abiatuko da 88. Altsasu Txirrindularitza Proba. Espainiar estatuko proba beteranoena da, Espainiako Vuelta bera baino zaharragoa, SDako arduradunek nabarmentzen duten bezala. Afizionatuen mailako txirrindulari onenak bilduko dira, Euskaldun Torneo ezaguna erabakitzen duelako, Altsasuko azken proba puntuagarria baita.

Urte luze hauetan gerora txirrindulari handiak izan direnak aritu dira bertan: Indurain, Lajarreta, Valverde... eta, jakina, baita bertakoak ere. Baina soilik altsasuar batek lortu izan du orain arteko 87 urtetan proba irabaztea: Martin Zelaia Zufiaurrek. Egun 80 urte ditu, eta 23 urte zituenean irabazi zuen, 1960. urtean. Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik SDAk Martin Zelaia omenduko du gaurko sari emate ekitaldian.

Zelaiak 15 urte zituela txirrindularitza hasi omen zela adierazi du Noticias de Navarran. Inguruetako probatan parte hartzen hasi zen eta ondoren Iruñea, Donostia... eta halakoe-tan. Horretarako tarteka baime-na eskatzen zuen lan egiten zuen zerrategian. Eta uzten ziotenean,



Martin Zelaia, gaurko probako kartelarekin. Bera agertzen da argazkian. N.MAZKIARAN

trenean joaten zen lasterketetara. 17 urterekin eszedentzia eskatu zuen, txirrindularitza aritzeko. Ongi zihoazkion gauzak, baina osasun arazoekin hasi zen, indarrrik gabe geratzen. Solitaria deritzon gaitza omen zuen. Tartean Sunsundegin ere lan egiten hasi zen eta, azkenean txirrindularitza utzi zuen.

Martin Zelaia 1970 hamarkadan Burunda Txirrindularitza Klubeko sortzaileetako bat izan zen; klubeko lehen zerbakia duen bazkidea da. Bere bi semeak ere txirrindulariak izan

ziren. Horieta bat, Carlos, Kaiku taldean aritu zen eta Altsasu Proba irabaztear egon zen bitan, 1991 eta 1992 urtetan bigarrena sartu baitzen.

10 aldiz pasako da Altsasutik 88. Altsasu probak iazko ibilbide bera izango du (124,3 km). 10 aldiz pasako da Altsasutik.

Kategoria txikikoak larunbatean Kategoria txikikoek larunbatean izanen dute lasterketa, 16:00etan, Zumalakarregi plazan. Ginkanan eta lasterketan ariko dira.

Inhar Astitzen lehen garaipena

TXIRRINDULARITZA Arabako Itzuliko 2. etapan, Intersport Irabiak lasterketa bikain kontrolatu eta Inhar Astitzek bere lehen garaipena lortu zuen, bere taldekide Urko Gorritiren, Igor Arrietaren eta Aitor Alberdiren aurretik. Gorritik mendiko eta tartekako helmugan saria jaso zituen. Quesos Albenizko Unai Aznar 6.a, Unai Villalobos 9.a eta Iker Mintegi 12.a izan ziren.



GUAIXE

Tritoienan Solanas nagusi

MENDI LASTERKETAK Euripean, 35 korrikalarik hartu zuten irteera. Txuekari eta Mercerori omenaldia egin zitzaien eta bildutakoa Motxila 21 endako izan zen

Larunbat goizean ez zegoen giro: euria eta hotza, hori zen panorama. Hala ere, 35 korrikalari bildu ziren Ergoienako Udalak, Arbizuko ekokanpinak eta Dantzaleku Sakana klubak antolatutako I. Tritoiena mendi lasterketan parte hartzeko prest. Lizarragatik Andiara igo, San Adrian ermita gainditu, Lizarragako tuneletik pasa, Aitzorrotzetik Dorraora jaitsi, San Pedro ermita pasatuta, Unanura iritsi, Beriain igo, Uharte Arakilgo portutik jaitsi eta Beriain magaletik Arbizuko ekokanpineko helmugara iristea zen erronka (30 km eta 1.800 metroko desnibela). Bazegoen ere bide erdia egiteko aukera; Unanura helduta, Beriain igo beharrean Arbizuko ekokanpineko bidea hartzea, hain zuzen. Bost korrikalarik aukera laburraren alde egin zuten eta gairontzekoek, aldiz, ibilbide luzea.

Seinaleak aldatu zituzten

Norbaitek seinaleak aldatu izanak lasterketa nahasi zuten. Izan ere, antolakuntzak aurretik markatutako bidean seinaleak aldatu eta kendu zituzten ezezagun batzuk. "Seinale eta marka batzuk kendu dituzte eta beste batzuk tokiz aldatu dituzte, xenda galduetatik. Hiru aldiz galdu eta atzera ere pasatu ditut korrikalariak" aipatu zuen I. Tritoiena meritu handiz irabazi zuen Feli Solanas santurtziarrak.

Laburrekoak bi ordu pasa eta luzekoak hiru ordu t' erdi

Iristen lehenak 15 km-ko hautua egin zutenak izan ziren, Ioni Araña arbizuarra (2:13:28) eta Izaro Imaz (2:15:21) buru. Tritoiena proba luzeari dagokionez, Feli Solanasek (Sestao Atletico) hiru ordu t' erdi behar izan zuen despeditzeko (3:30:41). Proba oso gogorra baina oso polita zela nabarmendu zuen, Beriain igoe- ra eta jaitsiera, bereziki. Biga-

rrena Jose Antonio Salgado altsasuarra izan zen (3:46:10) eta hirugarrena Iker Flores urdiaindarra (3:47:50). Aipatzekoa da 16 urteko Javi Asanz altsasuarra izan zela proba osatu zuen korrikalari gazteena (4:11:06), sailkapen orokorrean 14.a. Eta soilik emakume batek lortu zuen I. Tritoiena despeditzea, Arantxi de la Fuente bergararrak (4:50:58).

Omenaldia Txuekari eta Mercerori

Sari ematearekin batera antolakuntzak Maitane Txueka eta Jose Mari Mercero omendu zituen. Txuekak 2009an Saharako Maratoia irabazi zuen eta Zegama-Aizkorrin hirutan aritu izan da. Amatasunagatik konpetizioa utzi du tarte baterako, baina bueltatuko dela adierazi zuen. Bestalde, 78 urterekin Jose Mari Mercero sasoi bete jarraitzen du: hirutan izan da Espainiako Txapelduna, bostetan txapeldunordea, aurtun, esaterako eta brontzezko hiru domina izan ditu. Ahal duenera arte korrikan jarraituko duela adierazi zuen.

Irabazleek, lehen beterranoak eta lehen gazteak, Unanuko inauterien mamuxarroen Kattola jaso zuten opari, bestelako sariekin batera. Bigarrenak eta hirugarrenek ere saria jaso zuten; baita azkenek ere. Salgadok bigarren saria, lehen sakandarraren saria eta lehen beterranoaren saria jaso zituen. Horretaz gain, parte-hartzaileen artean sariak zozketatu zituzten.

Bildutakoa Motxila 21 taldearendako

Probako izena ematearengatik jasotakoa eta Tritoienako kamisetak saltzeagatik jasotakoa Motxila 21 taldeari eman zuten antolakuntzak. Down sindromea duten gazteek osatzen dute Motxila 21 eta bertako kidea da Aintzane Lizarraga dorrobarrak. **Sailkapena: www.guaixe.eus**

Tritoienak utzitako irudiak



Mercero, Lizarraga eta Txueka irteeran Hirukote honek eman zion irteera Tritoiena mendi lasterketari. Jose Mari Mercero eta Maitane Txueka Lizarragaraino joan ziren korrika, buruan zirela, ordura arteko tarte neutralizatutakoa baitzen.



Hotza, lainoa eta haizea Hori zen larunbatean Lizarragako tuneleko panorama. Hala ere, korrikalariak ez ziren kikildu eta hornidura gunean hartu beharrekoak hartuta, aurrera segi zuten, Beriain baitzuten zain.



Sari ematea Lehendabiziko hirurek, lehen sakandarrak, beterranoenak eta gazteenak jaso zituzten opariak. Baita azkenek iritsi zirenak ere. Horretaz gain, hainbat opari zozketatu zituzten eta bildutakoendako auzatea izan zen.

MENDI LASTERKETAK Beñat Katarain 3.a Axari Traillean

Larunbatean Axari Trail mendi lasterketa jokatu zen Idiazabalen, bi distantzian. Axari Trail luzea (25,4 km) 242 korrikalarik osatu zuten eta Ander Iñarra (2:03:10) eta Oihana Azkorbebeitia (2:27:02) izan ziren azkarrenak. Beñat Katarain lakuntzarra hirugarrena sartu zen, (2:07:59), eta Mikel Rubio irurtzundarra 135.a (3:05:47). Axari Txikian (16,4 km) Eneko Trinche (1:15:54) eta Ane Iturria (1:27:12) gailendu ziren. Alberto Martinez de Lagran altsasuarra 33.a sailkatu zen (1:35:52), Xuban Mendio- la etxarriarra 39.a (1:39:05); Ander Rosado arbizuarra 58.a (1:46:09) eta Ainhoa Markinez olaztiarra 111.a (2:15:46).



Naiara Diez. GUAIXE

SASKIBALOA Naiara Diezen Lointek Gernika, aurkeztua

Emakumezkoen maila gorenean, Liga Femeninan dabilen Lointek Gernika-Bizkaia saskibaloitaldeak 2017/2018 denboraldiaren aurkezpena egin zuen asteartean Gernikako Juntetxean, Gernikako arbolaren aurrean. Taldeko kapitaina da hurrengo egunean Altsasuko txupinazoa jaurtiki zuen Naiara Diez saskibaloitokalarialtsasuarra. Diezek azaldu zigunez, ohore handia izan zen, berarendako, etxajua piztutzea. Orain aurre-denboraldian murgilduta daude Gernikako jokalariek buru belarri, gogor entrenatzen. Taldearen aurtengo helburua proiektua sendotzea eta European ongi ibiltzea dela gaineratu zuen Gernikako kapitainak.



Joxean Begiristain (Burunda), Alberto Ocaña (Barranka), Amaia Gerrikagoitia (Mank) eta Mariasun Erdozia eta Edy Cerviño (Aralar).

XXIV. Sakanako Bizikleta Egunean aritzeko deia

TXIRRINDULARITZA Irailaren 24an izanen da, goizeko 9:00etan Ziorditik aterata, Irurtzunera heltzeko (41,3 km). Irailaren 18ra arte eman behar da izena ikastetxeetan, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan eta ohiko tokietan

Astelehenean XXIV. Sakanako Bizikleta Eguna aurkeztu zuten Sakanako Mankomunitateko egoitzan. “Sakana bizikletaz ezagutzen” lelopean burutuko da urtero ezagunagoa den bizikletaren festa. Irailaren 24an izanen da, goizeko 9:00etan Ziorditik abiatu, Lakuntzan atsedendu hartu eta Irurtzunen despedituko den proba ez lehiakorra (41,3 km). Mankomunitateak antolatzen du eguna, Barranka, Burunda eta Aralar txirrindularitza taldeen eta Irurtzongo eta Ziordiko udalen laguntzarekin.

“Sakanan bizikletarekiko zaletasun handia dago, betidanik. Horren erakusgarri dira aipatu hiru txirrindularitza taldeak. Azken urte pare hauetan, gainera, osasun betean daude. Burunda eta Aralar klubaren artean 90 txirrindulari inguru trebatzen ari dira” aipatu zuen Gerrikagoitia kirol teknikariak. Barranka taldekoak, aldiz, btt edo mendi bizikletan aritzen dira eta beteranoagoak dira.

Sakana ezagutu, Donejakue bidean sakondu eta harremanak sustatu

“Eta horregatik guztiagatik antolatu genuen Sakanako Bizikleta Eguna, duela 24 urte. Ibilaldi ez lehiakorra da eta urte hauetan guztietan egonkortu da” nabarmendu zuen teknikariak. Helburua, batetik, goiz ederra pasatzea da, Sakana puntatik puntara zeharkatuz. “Gure herriak, kaleak, ermitak, landaretza, basoak, kaleak, xendak... ezagutu nahi ditugu, bizikletan” azaldu zuen Gerrikagoitia. Bestetik, eta aurreko urtean hasitako bideari jarraituz, Sakanatik pasatzen zen Donejakue bidea ezagutarazi nahi dute. Horrela, Iturmendiko Aritzaga ermita erromanikoan geldialdia egingen dute. “Boluntario batek 10-15 minututan azalpenak emango dizkigu” zehaztu zuen kirol teknikariak. Eta beste helburu bat Sakanako herri ezberdinetako bizilagunen arteko harremana sustatzea da.

Izena ematea, ezinbestekoa

Autobusak antolatzeko eta aseguruia kontratatzeko irailaren 18a baino lehen eman behar da izena, Sakanako ikastetxeetan, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus), zenbait udaletan eta ohiko tokietan. Dohainik da. “Ezin da izena eman gabe parte hartu”. nabarmendu dute antolatzaileek.



Iskiza Sakana Taldeko gimnastak, entsegu batean . ISKIZA SAKANA

Iskiza Sakanak 10 urte: gaur erakustaldi berezia Altsasun

GIMNASIA ERRITMIKOA Gaur, ostiralean, 19:15ean, Iortia plazan gimnastek erakustaldi berezia egingen dute

Iskiza Sakana gimnasia erritmiko taldeak 10 urte bete ditu. Eta data borobil hori ospatzeko Altsasuko festetan erakustaldi berezia egingen dute. Ostiralean izanen da, 19:15ean, Iortia Kultur Gunearen parean. “Jaiak, musika, berdintasuna, elkarlana, dantza... Iskiza Sakanak 10 urte bete ditu, dantzaz eta ilusioz beteriko 10 urte. Horregatik, zuekin guztiekin ospatu nahi dugu eta Altsasuko jaietan, ostiralean, Iortia plazan egingo dugun erakustaldi berezira gonbidatzen zaituztegu. Animatu!” diote Iskiza Sakana klubekoek.

5 irakasle eta 40 gimnasta

Iskizako irakasleak 5 izango dira aurtan: Olaia Agirre, Olaia Granizo, Ainhoa Imaz, Cristina Nuncio eta Maria Remolina. Aurtan 40 gimnasta inguru trebatuko dituzte. “Data konkretua ez dakigu oraindik, ikasturtea,

berez, urrian hasiko dugulako. Baina txapelketa eta lehiaketetara aurkezten diren taldean 20-25 gimnasta inguru egonen dira eta gimnasia erritmikako eskolan 10-15 inguru” adierazi digu Olaia Agirrek.

Ostiralean egingo duten erakustaldi berezia prestatzen dabilta buru-belarri. “Aurreko urteko denboraldiko ikasle gehienekin prestatu dugu emanaldia. Berezia izango da. 15 koreografia edo dantza inguru eskainiko ditugu eta gimnasia erritmikako elementu edo aparatu guztiak erabiliko ditugu.

GAURKO ERAKUSTALDIAN 15 KOREOGRAFIA ESKAINIKO DITUZTE ISKIZA SAKANAKO EK

kirol jardueren hizkuntza irizpideak

kirol zerbitzua eskola zerbitzua

A. 10 urte
IKASLE GUZTIEK
IKASTURTEAN LEITE ELIZKORRAK

Itxastarora escharaz izanen da. Itxastari bakarha zuzentzen bozaratik beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aahera.

B. 15 urte
IKASLEEN ERDIK BAINO GEHIAGOK
IKASTURTEAN LEITE ELIZKORRAK

Itxastarora nagusiki escharaz izanen da. Ongi ulertzen ez duenari laguntza emango da. Itxastari bakarha zuzentzen bozaratik beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aahera.

C. 20 urte
IKASLEEN ERDIK BAINO GUTXIAGOK
IKASTURTEAN LEITE ELIZKORRAK

Itxastarora nagusiki gaztelan izanen da, baina monitoreaek escharari arbidara emanen die laguntza emango die. Itxastari bakarha zuzentzen bozaratik beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aahera.

Mank

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 15

LAKUNTZA Industria 4.0 eta digitalizazioa mintegia. Iraultza digitalak enpresengan duen eragina aztertuko dute. Izena emateko: mgaita@akanagaratzen.com edo 948 117 344. 09:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. lortiaiko zabalgunean, 18:00etan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean, 19:00etan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. Plazan, 20:00etan.

LARUNBATA 16

ARALAR. Lurraren bihotzetik izarretara programa Mendukiloko lezea eta Aralarko santutegira bisita gidatuek eta izarren behaketak osatzen dute.

18:30etik 23:00etara, Mendukilotik santutegira.

IGANDEA 17

ALTSASU Altsasutik elurtegia 55 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 09:00etan klubeko bajeatit.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. Foru plazan, 20:00etan.

ASTEAZKENA 20

OLATZAGUTIA Acompañar nuestra salud con flores de Bach hitzaldia emanen du Rosa Legarrak. 20:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 21

ALTSASU Abracadabra filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Gernika filmaren emanaldia. 20:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Eguerdiko auzateak**

Altsasuko festetan egunero errepikatzen dira herriko elkarte gastronomikoen eskaintako auzateak. Ostegunean Zubeztiak prestatu zuen, gaur Beti Jateneak, larunbatean Amandreak eta igandean La Encinak. Altsasuko festetan, egunero, 11:30ean.

**ALTSASU Huntza eta Los del Rayo**

Huntza taldekoek aldapan gora eta behera jarriko dituzte altsasuarak. Udako kantuak ez du huts egingo. Eta, jakina, Los del Rayoak gustura ariko dira etxean; aspaldiko arrakastak eta egungo kantuak eskainiko dituzte. Gaur, ostiralean, 00:00etan, Altsasuko Foru plazan.

ZORION AGURRAK



Jabi Moreno
ZORIONAK
"Beltzarana"! Jada 4 zenbakia hasierako kasilleroan, baina arima gaztea oraindik. Ez ahaztu Lagun Onak-eko blusa beltza eta festetan surfeatzera.



Jabi Tuero
ZORIONAK TURU!
Kontuz festetan, ez zaitzala biharamunak kalean harrapatu eee? Beno, dena dela behingoagatik bada ere...kar, kar, kar!!!

Zorionak zure urtebetetzean ...

Argazkiak helarazteko:
Altsasuko Foru plaza 23-1 - zorion@guaixe.eus
Ordainketa:

Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian:
ES56 3035 0018 47 01 81012564

*Eta orain 4€ argazkiak eta Pirritx Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!
Bazkideek, 3.50€*



ta urte askotarako



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** - Telefono mugikorra: **690 641 860**



JAIOTZAK / EZKONTZAK / HERIOTZAK

JAIOTZAK

- **Amy Yaritza Padilla Tabi**, abuztuaren 23an Irurtzunen.
- **Aimar Ekiza Martil**, irailaren 4an Irurtzunen.
- **June Zabaleta Santesteban**, irailaren 5ean Etxararren.
- **Naiane Falcón Flores**, irailaren 5ean Arbizun.
- **Garoa Jauregi Ulaia**, irailaren 8an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Daniel Correa Correa eta Merien El Abied**, abuztuaren 5ean Irurtzunen.
- **Igor Galparsoro Diaz eta Jaione Etxebeste Arrieta**, irailaren 7an Etxarri Aranatzen.

HERIOTZAK

- **Venancio Olasagarre Estonba**, irailaren 9an Arbizun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus


► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 15




Zerua hodeitsu egongo da eta zaparrada batzuk botako ditu. Tenperaturan gorabehera gutxi.

Larunbata, 16




Eguzki-tarteak izango dira. Zaparradaren bat ere bota dezake. Tenperaturak behera.

Igandea, 17



Eguzkiak hodeien artean lekua hartu nahiko du. Tenperaturak gorantz egingo du.

Astelehena, 18



Asteburuko giro aldakorrek hobera egingo du. Tenperaturak gora.

OROIGARRIA



Venancio Olasagarre Estonba



Pili Olasagarre Mendinueta, Iñigo Aritzta ikastolako irakaslearen aita

*Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.*

Iñigo Aritzta ikastolako langile, guraso eta ikasleak.

URTEURRENA

Alberto Artola



Ahazten ez dena,
ez da inoiz hilko

Etxekoak

ESKELA

Txuma Goikoetxea Napal



Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa, ordea, zu ahaztea. Beti gurekin izango zara. Zurekin ditugun oroimenak gure bizitzako poza dira. Negarrik ez, agurrik ez, musu erraldoi bat.

Etxekoak

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAITZA

Ramos Industrial: PLC-en programatzaile baten bila gabilta. Programatzen eta makinak marxan jartzen esperientzia eskatzen dugu. CV eskura eman bertan. Konfidentzialtasuna bermatuko da.

IKASTAROK

2. motako diabetesa duten pertsonendako. Gaitz hori dutenen osasun eta bizi estiloari buruzko prestakuntza beharrei erantzuteko tailerrak egingen dira Altsasuko osasun etxean hilaren 18an, 21ean, 25ean eta 28an, 17:00etatik 19:00etara. 2. motako diabetesa duten pertsonen elikadura eta ariketa fisikoa aztertuko dira. Gaitza duten pertsonak edo haien senideak elkartu nahi dituzte. Izen-ematea: 848

423 450 telefonoan (8:00etatik 15:00etara) edo www.escueladepacientes.navarra.es web orrian. Doakoa da. Saioak gaztelaniaz izanen dira.

OHARRAK

Etxarri Aranazko jubilatuen bidaia. Irailaren 26an, asteartean, Donostiako San Telmo museoa bisitatuko dute. 8:00etan abiatuko dira. Izena eman nahi duenak Gure Ametsa elkartetik pasa beharko du.

Olatzagutiko ludoteka. Izena ematea irailaren 18tik 25era udaletxean, bulego ordutegian. Haurreko 33,50 pagatu behar dira, familia bereko bi haur edo gehiagoren kasuan, 55. Ordainketa 012 edo 948 012 012 telefonoaren bidez, lastailaren 16tik 21era edo udalaren kontuetan dirua

sartuz. Ludoteka lastailaren 2an hasiko da.

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta kurtxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabx) telefonoetara hots egin dezatela.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilenentzako aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio

gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota marxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

3MBK kontu korrontea zabaldu du Rural Kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Euskonews ekonomiko-ki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

40 aniversario
TANATORIOS IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



1. saria: Haizearen dantzariak Portugalen. FRANCIS IRIGOIEN



2. saria: Agotzaren koloria. FRANCIS IRIGOIEN

Guaixe.eus-en udako argazki lehiaketak saridun bakarra

Hirugarren edizioan 53 argazki jaso dira. Epaimahaiak eta publikoak egile beraren bi argazki saritu ditu

SAKANA

Jasotako argazkien artean bi sari genituen banatzeko. Bata, epaimahaiarena, Eroski Bidaiek-ek oparitutako Costa Dauradan hiru lagunendako (bi nagusi eta ume bat) astebeteko egonaldia da. Epaileen saria

Haizearen dantzariak Portugalen argazkiarendako da. Bigarren saria, Kiki argazki-dendak oparitutako sorpresa, internauten 191 botoek erabaki dute: *Agotzaren koloria* argazkia. Bi argazkien egilea Francis Irigoien urdiaindarra da.



Joseba Salegi. ARTXIBOA

Zinema-gidoi batez hizketan aritzeko aukera

Joseba Salegik bere gidoiaz hitz egiteko hitzordua lortian jarri du, lastailaren 4an.

ALTSASU

Ion Arretxeren eta Carlos Perez Merieroren jatorrizko ideia hartu eta zinema-gidoia ontzen eman du azken hilabeteak Joseba Salegi zuzendariak. *Camino de caminantes* izenburua duen gidoian bi emakumezko dira protagonista: Ines polizia eta Elvira preso, Donejakue bidea elkarrekin egiten ari direnak. Haien bizipenen berri jakin nahi duenak gidoia Altsasuko liburutegian eta Arkatz eta Txartel dendetan du eskura, azken horietan fotokopiak pagatuta.

Salegik gidoia irakurtzera eta, ondoren, forumean parte hartzeko gonbidapena egin du, bere helburua baita irakurleek egiten dizkioten ekarpenekin (onak eta txarrak) gidoia aberastea. Dagoeneko hainbat pertsona izan dira gidoia irakurri dutenak eta Salegiri iritzia eman diotenak. Baina irakurle guztien elkarrekin-tzatik iritzi gehiago sortzea espero du sortzaileak. Gainera, forumean gidoiaren pasarte esanguratsuenak entzuteko aukera izanen da, Anabel Arraizak (Ines) eta Amelia Lapuentek (Elvira) irakurriko baitituzte. Altsasuko zinemagileak bere aurreko gidoiarekin ere, *Tecla rota*, halako gidoi-forumak egin zituen Olatzagutian eta Altsasun.



ARALAR MENDI ELKARTEA

Artzain eguneko argazkilariak

Artzain Egunean argazki lehiaketa antolatu zuten Aralar Mendi elkarteak eta Guaixe fundazioak. Sariak asteazkenean jaso zituzten Juan Carlos Irigoien Gorritik (bi pertsonendako asteburuko egonaldia hotel batean), Cristina Urrozek (asteburuko egonaldia Sakanako landetxe batean), Mikel Ganboak ezin izan zuen sari banaketan egon (bertako produktuen lote bat).

Arakilgo argazki lehiaketara lanak aurkeztu daitezke oraindik

Arakil ibarreko arkitektura da gaia eta lanak hilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. Oinarriak: www.arakil.net

ARAKIL

Laugarren urtez segidan Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak argazki lehiaketa antolatu du. Aurtengo gaia ibarreko herriak dira; edo, zehatz esanda, Arakilgo arkitektura ondarea. Lanak hilaren 28ko gauerdia arte aurkezteko aukera izanen da. Sariak bi izanen dira. Epaimahaiak emandako 200 euroko saria eta herri bozketa bidez aukeratutakoari 100 euroko saria (lastailaren 2tik 16ra). Argazki batek ezin izanen ditu bi sariak eskuratu.

Arakil Kulturak jakinarazi duenez, parte-hartzaile bakoitzak gehienez 5 argazki aurkeztu ditzake lehiaketara. Horretarako, arakilkultura@gmail.com e-posta du. Argazkilariak bere datuak eta harremanetarako bidea gaineratu behar ditu. Horrekin batera, aurkeztutako lanen izenburua, deskribapena eta irudian jasotakoaren kokalekua eman behar ditu. Argazkiak .jpg formatuan aurkeztu behar dira eta 30 cm-ko tamaina alderik handienera, 200 puntuko erresoluzioarekin.

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren gurrupila martxan

Irailaren 23an hasiko da. Eneko Lazkoz Martinez Tolosako final-laurdenean ariko da, lastailaren 14an

ETXARRI ARANATZ

Euskal Herriko Bertsotale Elkarteak prest du 17. Bertsolari Txapelketa Nagusia. 43 bertsolari izanen dira Euskal Herriko zazpi lurraldeetan barna lehiatuko direnak, guztiak ere, aben-

duaren 17ko BEC-eko final buruan dutela. Horien artean dago Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra, Nafarroako txapel-dunordea. Bera beste bost bertsolariarekin batera sei final-laurdenekoetatik azkenekoan ariko

da, Tolosakoan, lastailaren 14an. Talde bakoitzean puntu gehien jasotzen dituen bertsolaria pasako da finalaurrekoetara. Eta gainontzekoek puntuazioaren zain geldituko dira, jokoan dauden 12 txarteletako bat eskuratzeko.

www.bertsozale.eus web orrian lehiaketari buruzko informazio guztia izateaz aparte, final-laurdenetarako txartelak salgai daude. Elkarteko bazkide direnak hurrengo faseetarako sarrerak edo bonoak eros ditzakete.

San Migel festen aurreko jarduerak Olatzagutian

Ohikoa denez, Olatzagutiko Udaleko Kultura Zerbitzuak San Migel festen aurreko kultur programazioa antolatu du. Asteazkenean hasiko da Rosa Legararren *Acompañar nuestra salud con flores de Bach* hitzaldiarekin, 20:00etan, kultur etxean. Oste-gunean, berriz, *Gernika* filma ikusteko aukera izanen da, 20:00etan, kultur etxean.

Ordutegi aldaketekin heldu da lortiko zinema sasoia

Aldaketa nagusia da ostiraletako forum emanaldiak desagertu eta igandetan bitan emanen direla.

ALTSASU

Iortia kultur guneko 2017-2018 zinema denboraldiak *Abracadabra* komediak mustuko du. Ikuslearen egunean (3 euro) emanen dute, ostegunean, 22:00etan ikusteko aukera izanen da berriz, Eta, azken aukera, igandean izanen da. Baina orain arte baino ordu lehenago hasiko da emanaldia, 19:30ean. Aurreko ordutegiarekin irteera ordua berandutzen zela eta ikusleen eskaerei erantzunez aldatu du Altsasuko Udaleko Kultura Zer-

bitzuak gaurkotasuneko filmaren igandeko emanaldi ordua.

Familiarteko zinema emanaldiak lastailaren 1ean hasiko dira, ohiko ordutegian: igandean, 17:00etan (3,5 euro, aurretik 3). Eta ferien ondoren, lastailaren 22an hasiko da forum-zinemaren emanaldiak. Eta hor bai aldaketa handiak izan direla. Hasteko, ostiraleko emanaldia kendu egin da ikusle gutxi joaten zirelako; 13 pertsona batz bestea emanaldi bakoitzean. Egile-zinema ikusi nahi duenak igandean bi auke-

ra izanen ditu: 17:30ean eta 19:40ean hain zuzen ere.

Ikuslegoaren analisia

Aurreko zinema denboraldian 14.431 ikusle izan zirela jakinarazi du Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak. Joan den urtean baino %27 gehiago eta azken 10 urteetako publiko daturik onena da hori. Ikusle kopuru horren igoeraren atzean dago denboraldiaren luzatzea. Eskaintza familiarteko 5 film eta gaurkotasunezko 8 film gehiagorekin handitu zen. Emanaldi motari erreparatuz gero, familiarteko zinemaren publikoa % 60 hazi zen eta helduendako saioak % 17. Hala ere, zehaztu beharra dago benetako igoera gaurkotasunezko filmetan eman zela, % 25 batean, forum emanaldietako publikoak % 18 jaitsi zelako.



Altsasuko lortia kultur guneko areto nagusia ekitaldi batean beteta. ARTXIBOA

Zinemara joan zen publikoaren %64 gaurkotasunezko filma ikusi zuen, emanaldiko 240 pertsona, batz bestea. Familiarteko filmen publikoa %28 izan zen, 195eko batz bestekoa. Eta, azkenik, zine-klubaren eskaintzak

ikusleen % 8 bildu zituen, 65 ikusle emanaldiko.

Saso berriaren ere abonamenduak erosiz dirua aurrezteko aukera izanen da: 8 sarrera (30 euro), 5 sarrera (20 euro) eta 3 sarrera (12 euro)



BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ RUIZ DE LARAMENDI


Ekaitzak

Uztailarekin bizkortu zen gorakada. Temperaturaren azpian hiriak irmotasuna galdu zuen eta jendetza errari batek estali zituen kaleak. Bururatu zitzaidan orduan, hiriaren bihotzak ez zeukala niretzako lekurik, eta beste batzuen eskuetan utzi nuen, igoaldia leunduko zelakoan.

Baina ez zen eten. Hilean zehar zoramenak gora egin zuen eta itzultzerakoan hiria ahituta zirudien. Baina kontsumitzaileentzako hiriak ezin dira agortu: hiritarrentzat etxebizitza kopuru zehatza dago eta turistentzat, pisu amaigabeak. Eta zentroaldean mugitzen dira guztiak noraezean, giza artzaien atzetik, kale bihurtuetsuetan barrena.

Sargoria eguzkitik askatu eta gauza guztietan itsasten zen. Atmosfera dentso itogarriaren azpian ibili ginen egun astunetan zehar. Eta gero eta garagardo saltzaile gehiago, bolumena neurrigabe gora egiten eta ohio etengabeak edonon.

Egunean zehar loditzen zen burrunba, eta egunsentia hil arte luzatzen zen. Eta gainera argazkiak, eta mojitoak, eta selfiak eta paella, eta despacito...



Baina bapatean zerbait apurtu zen nonbait. Ez genekien zer, baina musikak behera egin zuen irratia pizteko. Berriak ahoz aho zabaltzen hasi ziren: zenbaitengandiarri, besteengan kurioso. Egonezina isla zitekeen aurpegietan, eta batzuetan interesa begien atzean, morboa. Inork ez du bere burua fribolotzat saldu nahi, baina errutinaren pitzadurak: kezka eta jakin-gosea. Arratsaldea aurrera joan ahala, hitzak ere lehortu zitzaizkigun (gertaerak, dakitena, informazioa, dakiguna...), baliogabe. Zurrumurrunen inguruan isiltasun tenk urduria eraiki zen, begiradak lurrerantz zuzentzen zituena. Eta noizean behin, zeruan, helikopteroa.

Etixerako bueltan, denda eta taberna askoren pertsianak

igota aurkitu genituen, eta jabeak kanpoan eserita, aulkietan, esperoan. Hiritarrek, bere gotorlekuekin aspertuta, kaleen birkonkistari ekin zioten. Eta hala ere, isiltasuna ezagutzen ez zuten kale horietan, xuxurla galduak baina ez ziren aditzen. Ekaitzaren ostean, hiria bare geratu zen, lasai.

Hurrengo egunetan ekaitza berriak (politikoak) lehertuko ziren: zu errudun, bera errudun, gu errudun... baina bitartean isiltasuna. Beldurraren mugetatik haratago, Bartzelonako aldi baterako hiritarrak eta hiritar finkoak errespetuz (isiltasunez) jantzi ziren gauean; negarrez ari zirenentzako errespetuz. Eta isiltasun hori, horren arraroa zen errespetua, mina baina indartsuago zirudien.

DISFRUTA EN
EL EUSKALTEGI
GOZATU
EUSKARA!



Ver vídeo
Bilveve Ikusi

Matricúlate
Izena eman ezazu

Información sobre los centros y
ayudas económicas:
Euskaltegi eta laguntzei
buruzko informazioa:

948 012 012

www.euskaraikasi.nafarroa.eus
www.aprendeeuskera.navarra.es

Antolatzaileak/Organizazioak

Udalak/Ayuntamientos: Auz/Agutz, Auzoan/Antsoan, Aranguren, Valle de Arca/Arzobab, Villava/Azaraba, Auritz/Burgate, Barañan, Barbasana, Barroilana/Berrizberr, Berrizor, Barlede/Barlata, Valle de Egalea/Egamiabar, Eres, Estaribar, Etxaur, Galia, Puente la Reina/Gares, Imatz, Pamplona/Iruña, Estella-Lizana, Lucioide/Valcarlos, Odieta, Cendea de Oza/Otza Zendea, Orreaga, Tafalla, Huarte/Parte, Uztzema, Zizur Mayor/Zizur Nagusia, Mankomunitateak/Moncomunitades: Sakana, Iruña/Barlata, Valdecarbe/Barroibar, Biztorde Nagusiak/Antes Generales: Ansoa, Forcal/Etronean, Sakana/Zaraitza

Mank %50

Subvención
50% de la matrícula

Diru-laguntza:
matrícularen %50

Más información / Informazio gehiago:
Sakanako Mankomunitateka
Euskara Zerbitzua 948 464 840
Itzasi euskaltegia 948 468 258



“Altsasun Bulgariarekiko antzekotasunak ikusten ditut”

Milena Altsasuko bulgariarra da eta festetan ospatuko den Munduko Arrozak ekimenean parte hartuko du. Zortzi urte darama Altsasun, bederatzi urte Catalunyan pasa ondoren. Herrimina handia duela aitortzen du, hortaz, jaioterriaz hitz egiteko edozein aukera aprobeztatzen du. Horregatik, ere kulturartekotasuna bultzatzeko ekimenetan parte hartzea gustatzen zaio, Bulgaria ikustarazteko eta besteez ikasteko.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zertan datza Munduko arrozak ekimena?

Jendeak hainbat herrialdetako janaria ezagutzeko ekimen bat da. Arroza Munduko herrialde askotan sukaldatzen da eta bakoitzean modu ezberdinean egiten da. Amankomunean dugun osagai bat da. Bulgariakoa, esaterako, ez da horren ezberdina. Guk arroza labean sukaldatzen dugu. Baina geroz eta jende gehiagok egiten du hemen bezala.

2 Noiz eta non ospatuko da?

Altsasuko festetan, irailaren 17an, domekan, goizean zehar. Ordu eta erdi inguru izango dugu arrozak prestatzeko, 11:00etatik aurrera. Gero dastatzeko aukera izango da. Bitartean magia ikuskizuna egongo da, musika...

3 Altsasuko festetan Munduko Arrozak ekimena hirugarren urtez ospatuko da aurten. Aurrekoetan parte hartu duzu?

Iaz lagun batek parte hartu izan zuen eta ni laguntzaile bezala aritu nintzen lana egin behar nuelako. Olatzagutiko jaietan



Milena Yordanova Nikolova. Munduko Arrozak ekimeneko partehartzailea.

parte hartu nuen arroza sukaldatzen.

4 Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso ona. Jende asko ezagutu nuen: Senegalgo jendea, Ganbia-

koa, Maroko... Eta arroz guztiak probatu nituen, denetarik. Oso desberdinak eta interesgarriak.

5 Beraz, esperientzia gustatu zitzazizun eta aurten parte hartzea erabaki duzu.

Sukaldatzea gustatzen zait, eta dakidana egiten erakustea gustatzen zait ere. Ez da bakarrik gastronomia, kultura desberdinak ezagutzeko aukera dago Munduko Arrozak ekimenean. Gustatuko litzaidake jendeak Bulgariako gastronomiaz gehiago jakitea, baita hango jendeaz ere. Bulgariaz gutxi dakite hemen. Oso herrialde polita da. Denetarik dugu, itsasoa, mendia... Altsasun Bulgariarekiko antzekotasunak ikusten ditut: dantzak antzekoak dira; Kukerak ditugu, Momotxorro antzekoak direnak, eta gure koloreak berdea, txuria eta gorria dira.

6 Zer prestatuko duzu?

Arroza oilaskoarekin, normalean. Hemen egiten denaren antzekoa da. Bulgaria osoan sukaldatzen da eta ohikoena da. Baina guk labean egiten dugu. Igandean dagoenarekin moldatuko naiz. Oilaskoa botako diot, hobe koipe pixka bat badu eta hezurrik kenduko dizkiot; tipula, piper beltza eta ura. Chubritsa botako diot, oreganoaren antzeko ongailu bat da. Hasieran kalabazinarekin egitea pentsatu nuen. Nire amak askotan prestatzen du kalabazinarekin, baina igandearako haragia botatzea hobe dela uste dut. Guk gainetik yogurta botatzen diogu. Jendeak ez daki, baina yogurta Bulgariako jaki bat da. Bulgarian hainbat plater gehiago egiten dira arrozarekin, esaterako, piperrak arroza eta haragi txikiarekin betetzen ditugu, edota azak. Azken hau Balkanetako plater tradizionala da.

7 Munduko Arrozak ekimenean hainbat herrialdetako arrozak

egongo dira dastatzeko. Zertan desberdinduko da Bulgariakoa?

Ez da mina. Hemen prestatzen denaren antzekoa da zaporez. Arroz nahiko sinplea da.

8 Prestatzen duzun bitartean egiten ari zarene azalduko duzu?

Bai. Eta beste arrozak probatzen joango naiz ere. Prestatzen joaten zaren bitartean ondokoetara joaten zara eta haiek botatzen dituzten osagaiengatik galdetzen duzu...

9 Laguntza izango duzu?

Bai, Bulgariako lagun bat edo nire alaba egongo dira nirekin.

10 Ez da zure lehenengo Munduko Arrozak izango, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Esperientzia oso polita da. Jende asko sukaldatzen gaude, eta besteen arrozak probatzen goaz. Ez da lehiaketa bat, gure gastronomia eta kultura erakusteko ekimen bat da. Jendearekin hitz egiten duzu eta kultura desberdinak ezagutzeko aukera duzu. Gainera, arroz horiek etxean prestatzen saiatu zaitezke gero. Nire hurrei Marokoko cous-cousa asko gustatzen zaie. Ez da bakarrik arroza prestatzea eta dastatzea.

11. Nola eman zenuen izena?

Begori esan nion, Sakanako Mankomunitateko Anitzarteko teknikaria. Parte hartu nahi duenak 648 070 710 deitu dezake. Holako ekimenetan parte hartzea gustatzen zait. Zelandin ere kulturartekotasun astea ospatzen dugu eta hurrei gure herrialdetako kultura eta ohiturak kontatzen dizkiegu.

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
AQUARIUM: SARRERA BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
AQUARIUM: SARRERA BAT



CAMPING
ARTAZA

Ekain berri

kaip

lacturale

AQUARIUM

GAZTEZULO